

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko urriaren 31 • IV. urtea

129. zenbakia • DOAN BANATZEKO



GABIREL EZKURDIA

*“Autodeterminazioaren subjektua herriaren nortasunaren eta egoeraren arabera da”*

**Goienka2a**

Hiletaren inguruko ohiturak asko aldatu dira Debagoiengan

Barruan, zure herriko aldizkaria



**KIROLA**

Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldearen hitzaldia Eskoriatzan/10

**BARRUAN, GEHIGARRIA: GOITB-REN PROGRAMAZIO BERRIA**

**ASTEKO GAIA: ISTRIPUAK EGUNERO GATZAGAN /2-3**

## Gatzagako bidea, ibar oso arazoa

Gatzagarrak nekatuta daude GI-3310 errepidearen egoera salatzearaz: egunero-egunero izaten da istripuren edo sustoren bat han. Izan ere, Eskoriatza eta Gatzaga lotzen dituen bide horretatik ibar

osoko 6.000 bat auto pasatzen da egunero-egunero, Arabara bidean. Argi dago debagoiendar guztion arazoa dela bide hori. Jaur-laritzak EAEko errepide arriskutsuenen zerrendan sartu du.

## Enrike Letona askatzeko Bilgunea aurkeztu dute

Enrike Letona arrasatearra aske lagatzeko Bilgunea sortu dute hainbat mondragoetar ezagunek. Aurkezpen ekitaldia eguaztenean egin zuten Arrasateko udal-txean eta han izan ziren, besteak beste, Inazio Lakuntza alkatea eta Xabier Zubizarreta alkate ohia.

Enrike Letona aurtengo maiatzean geratu zen aske, espetxean 16 urte egin eta ETAko kide izatea egotzita jarri zioten zigor osoa bete ondoren. Uztailaren 31n, ordea, atxilotu egin zuten berriro, 1981ean ustez egindako delitu batengatik. /4



JULEN IRIONDO

## Markel Irizar Euskaltelekoa da

Orain arte Orbea-Olarra taldean jardun duen Markel Irizar oñatiarrak atzo, eguna, sinatu zuen Euskaltel taldearekin bi urterako kontratua. Ondoren, taldeko zuzendariak, Migel Madariagak, prentsaurrekoan aurkeztu zuen fitxaketa berria, profesionaletara igo berri diren beste lau taldekideekin batera. Madariagak goraiatu egin zuen Markel Irizarren adorea, batez ere, jasan behar izan dituenak jasanda, gauza izan delako goi mailan segitzeko. /11

### HEZKUNTZA

#### Realeko presidentek irekiko du Bergarako UNEDeko ikasturtea

Jose Luis Astiazaranek, Realeko presidentek, egingo du Bergarako UNEDeko ikasturte berriaren irekiera ekitaldiko hasiera-hitzaldia. 19:00etan izango da, Bergarako udal-txean. Ekitaldian izango dira, besteak beste, Jon Barrutia Unibertsitateetako sailburuordea eta Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusia. /4

**DISEINU  
GRAFIKOA  
INPRENSIO  
DIGITALA**

Azaroan ZUEKIN!!

9 437 673 20 • BARRENKALE 42 • 20570 Bergara

**Modelo guztiak, prezio guztiak, kalitate osoa...**

**Interes bari**  
**4 URTE**

6 hilabete eskura ordaintzeak dakarren deskontuarekin ordaintzeko, edo 4 urte interes barik

**TODO Mueble Kabia**  
Gipuzkoa Etorbidea, 28 • Tel. 943 79 27 70 • ARRASATE



# Euskal Herriko gune bel

■ Eskoriatza eta Gatzaga arteko zatian egunero daude istripuak

■ Ibarreko milaka auto pasatzen dira handik egunero

■ Gatzagarrek, ibarreko adituek... maiz salatu dute egoera, baina ez dute erantzunik jaso orain arte



Istripu gehienak, zorionez, ez dira oso larriak izaten, baina bai maiztasun handikoak.

AINZANE GARDOKI

LEIRE KORTABARRIA

**H**ildakorik ez dagoenez, arazoa ez dela larrigia esan izan dute beti". Hori diote GI-3310 errepidea —hau da, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga elkartzen dituen— dagoen egoera salatu dutenek jaso duten erantzuna Diputazioetik. Baina errealtatea oso bestelakoa da. Egia da, zorionez, heriotza gutxi gertatzen direla errepide horretan; baina horrek ez du esan nahi istripu gutxi daudenik. Ezta gutxiagorik ere. Izan ere, errepide zati hori da Gipuzkoako hamar *puntu beltzetako* bat, gertatzen diren istripu kopuruari begira, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren datuen arabera. Hain zuzen ere, zati horretako bosgarren kilometroa da arriskutsuena.

## 6.000 AUTOTIK GORA

Erabiltzaileendako, ordea, tarte osoa bihur daiteke tranpa bat. "Ezbeharrak etengabe gertatzen dira; normalean, ez dira larriak izaten, zorionez; baina talka eta susto txikiak egunero daude", diosku gatzagar batek. Leintz Gatzagako udal arduradunen kalkuluen arabera, 6.000 autotik gora ibiltzen da errepide horretatik egunero.

Rafa Etxabe autoetan adituak hainbat proba egin ditu errepide horretan, eta bere ondorioa honakoa da: "Zorua oso-oso irristagarria da, lehor dagoenean eta guzti. Min ematen du entzuteak erakundeek ez dutela ezer egiteko asmorik, batez ere, ikusita egoera asko hobetuko litzatekeela galipot geruza bero bat botata, gutxienez", diosku.

## JOSERRA AGIRREURRETA / GATZAGAKO ALKATE OHIA

*"Orain ehun urte bezala dago bide hori"*

**J**oserra Agirreurreta Gatzagako aurreko alkateak ondo baino hobeto ezagutzen ditu errepideok ematen dituzten arazoak.

### Egoera txarra da, ezta?

Pentsa: Gatzagako errepide horretatik, egunero, 6.400 autotik gora ibiltzen da. Debagoien oso-oso autoak pasatzen dira handik. Zati arriskutsu asko daude: aldapa-gainalde bat, hainbat errebuelta, Eskoriatzako Mendibeko errebuelta... Errebuelta horretan hil zen Gatzagako alkate izan zena, Markole. Egunero-egunero daude bizpahiru istripu.

### Erakundeek kezurik aurkeztu diezue?

Aldundiarekin egon ginen behin. Entzun, entzun ziguten, baina lau urtean ez zuten inbertsiorik egin. Nire agintaldian hiru hildako egon ziren errepide horretan, gogoan dudala.

### Autobideak ezer hobetuko du, zure ustez?

Hori da euren aitzakia, autobidearekin konponduko dela, baina kontua ez da beste errepide bat egitea, duguna konpontzea baizik. Orain dela ehun urte zegoen bezalaxe dago bide hori; lehen diligentsiaz igotzen zuten bide hori orain milaka autok igotzen dute.



ERLAXA ZAITEZ, ONENAREN ESQUETAN ZAUDE



## Eseri eta erlaxatu

Munduko erosoena direnez, Stressless-ko besaulkiek eta sofek erabateko eta berehalako atseden sententzia eskaintzen dizute.


Inoiz baino gehiago, Stressless leku erosoena da etxeokoin batera film bat ikusteko. Plus Sistema™ eskusiboari esker, Stressless-ko produktuak zure gorputzera primeran egokituko dira, bai atseden aktiboko zein etzandako posizioan. Ezaugarri berezi horrek benetako atsedengune bihurtzen du Stressless.

*Noche y Dia*  
Alcobaoren besotetan

Atseden Etxea


Adriano VI, 17 • GASTEIZ

Tel./Faxa: 945 21 42 24






# tzetako bat, ibarrean



## INAZIO LAKUNTZA

MANKOMUNITATEA

Arazo honetaz hitz egin dut hainbat aditurekin, eta kezka hori jaso dut. Aldundiari bideratuko diot gai hori. Aspalditik datorren arazoa da, eta konpontzeko neurri egokiak haru behar dira, eta Batzar Orokorretan presioa egingo dugu, gai hau Diputazioari konpontzea dagokio-eta.



## RAFA ETXABE

AUTO SALTZAILE ETA ADITUA

Bide horretan ibiltzea da beira gainean ibiltzea bezala. Lehor dagoenean ere, autoa irristatu egiten da, berdin abiadura igo zein gelditzerakoan. Gatzagako errepide osoa bere itsaskortasunaren erdira dago. Aldundiak dio "hildakorik ez dela egoten" istripuotan. Hori lotsagarria da.



## JUANITO SAIZAR

AUTOBUS GIDARIA

Gatzagako bidea estua da, salto asko ditu... baina benetako arazoa da presaka gidatzen dugula, eta hiruzpau minutu "irabazteagatik", modu txarrean ibiltzen garela. Lasai ibiliz gero, ez legoke halako arriskurik; bihurguneak ondo hartzeko modukoak dira... Errepideak ala guk dugu errua?



## JOKIN ITURRIOTZ

AUTOESKOLAKO ARDURADUNA

Abiadura handiegia da hamarretik bederatzi istripuren arazoa, eta ez errepidea bera. Istripu hura egon zen gunean badaude bihurgune batzuk, bai, baina ez dago hain txarto bidea. Arazoa da jakitea balaztak erabiltzen. Bidea bustia dagoenean, hamar aldiz denbora luzeagoa behar da gelditzeko.

## GI-3310 zatiko arazoa?

- Ehun urtean hobekuntzarik izan ez duen errepidea.
- Jasan dezakeen baino askoz zirkulazio astunagoa jasaten du: Debagoien osoko 6.000 autotik gora, egunero.
- Zorua oso irristagarria da: itsaskortasunaren erdia galdu du.
- Batez ere euriarekin, labaintasuna handiagoa da.
- Gidari gehienek abiada handiegia hartzen dute.
- Bihurgune arriskutsu bat baino gehiago dago.
- Aldape-gainalde arriskutsuak.

Beste faktore bat da abiada handiegia. Izan ere, Arlabango saihebidetako pare-parean dago, baina, Juanito Saizar autobus gidariak dioen bezala, "presaka ibiltzen gara beti, minutu pare bat aurreratzeko besterik ez bada, eta ez dugu elkar errespetatzen". Horrek daramatza Debagoieneko hainbat gidari betiko errepidea hartzera, saihebidetaren orde. Oraingo, ordea, Foru Aldundiak ez du errepide horretarako inongo ekintzarik aurreikusita.

**ABIADA, FAKTORE ERABAKIGARRIENA**  
GI-3310 Gipuzkoako errepideetako zorigaiztoko *zerrenda beltz* horretan dago. Zati hori da, hain justu, Eskoriatzatik Gatzagaraino doana; hortik eta Arabako mugaraino bertaraino jarraitzen duen zatia ere ez dago askogatik hobeto, nahiz eta hor ere istripuak gertatzen diren

noizbehinka. Hala izan zen, azken aldiz, urri hasieran, Eskoriatzako gazte bat hil zenean, bere autoak beste batekin talka egiterakoan.

Baina badirudi istripu hori salbuespen beltz bat izan zela. Debagoieneko Gurutze Gorriak honakoa dio: "Ibarreko errepide guztiak antzera samar daude; ez dugu sumatzen errepide jakin bat besteak baino askoz okerrago dagoenik, atenditu beharreko larrialdien arabera". Bat datoz ibarreko suhiltzaileak.

Horrek garamatza adituek eta errepidean urte asko daramatenek eman diguten azalpena: kasu gehienetan, presaka ibiltzeak eragiten ditu istripu gehienak. Egia da, hala ere, errepideak behar bezala egoteak —itsaskortasun, bihurgune ezaren aldetik, eta abar— istripu kopurua murrizten lagunduko lukeela.

## Irtenbide bakarra, oraingo, errespetua

GI-3310 errepide zatia, Leintz Gatzaga eta Eskoriatza elkartzen dituen, Euskal Herriko arrisku handiko 341 errepide zati artean dago, eta Gipuzkoako hamar zati arriskutsuenetarikoa da. Horrela da, Eusko Jaurlaritzak errepideetako arrisku maila erabakitzeke jarritako irizpideen arabera. Honela definitzen da mota horretako tarte bat: "Kilometro bateko errepide tarte bat, non azken bost urteetan biktimak izan diren hamar istripu edo gehiago gertatu diren".

Baina definizio hori motz geratzen da GI-3310 tarteko egoera deskribatzeko; izan ere, gatzagarrek ondo dakiten moduan, istripuak egunero gertatzen dira han, baita oso zauritu larriak ere. Gatzagako udal arduradunak behin eta berriro saiatu dira erakundeetatik erantzun bat lortzen, baina ez dute lortu. Debagoieneko gidari beterrano eta aditu guztiek aholku eta irtenbide bakarra ikusten

dute: abiada egokian ibiltzea eta elkar errespetatzea. "Errepideetako erabiltzaile gara, inor ez da errepidearen jabe", gogora ekartzen digute gidariok.

Kontua da, ordea, ia ezinezkoa dela istripu bakoitzeko arrazoiak zehaztasunez jakitea. Herrizaingo Sailaren arabera, istripuen %29,1 gertatzen da arreta galtzeagatik eta %14, abiadura desegokiagatik. Argi dagoena da, ordea, istripuen errua ez dutela beti errepideek eta giro faktoreek: zirkulazio ezbehar gehienak gertatzen dira errepidea lehor eta garbi dagoela (%65,4), eta egun argiz. Datu horiek iazko zirkulazio istripuen azterketa baten ondorio bezala jakinarazi ditu Eusko Jaurlaritzak. Beste ondorio bat zen iaz 193 lagun hil zirela EAeko errepideetan gertatutako ezbeharretan, aurreko urtean baino bi gehiago. 1.205 lagun larri zauritu ziren eta 8.775, arin. 22.276 istripu izan ziren, eta %31k biktimak izan zituzten.



Goi mailako Lanbide Heziketako Batxilergo Institutua  
**Miguel ALTUNA**



EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAK  
DIRUZ LAGUNDURIK ETA EUROPAKO FONDO SOZIALAK ERE FINANTZATURIK

## TXIRBIL HARROKETA BIDEZKO MEKANIZATU IKASTAROA

IRAUPENA: 695 ordu.

NORENTZAT: **Langabezian dauden gizon-emakumeentzat.**

EGITARAUA:

**1. TEORIKO-PRAKTIKAK. (495 ORDU)**

Produktuaren ezaugarriak egiaztatzea ..... 75 ordu  
Planoen interpretazioa ..... 40 ordu  
Bistak eta krokizazioa ..... 40 ordu

Fresatzeko makina konbenzionaleko mekanizazioa ..... 60 ordu  
Tornu konbenzionaleko mekanizazioa ..... 60 ordu  
Mekanizazio-prozedurak: ebaketa eta konformazioa ..... 40 ordu  
Artezteko makina zilindrikoko mekanizazioa ..... 40 ordu  
Artezteko makina lauuko mekanizazioa ..... 40 ordu  
Lan taldeko harremanak ..... 60 ordu  
Fabrikazio mekanikoko industrietako Segurtasuna eta Ingurugiroa ..... 40 ordu

**2. LANTEGIKO PRAKTIKAK (200 ORDU)**

EUROPAKO FONDO SOZIALAK ERE FINANTZATUA



DIRULAGUNTZA:



JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

**Matrikula zabalik 2003ko irailaren 29tik aurrera. Ikastaroaren hasiera azaroaren 17an. Informazioa idazkaritzan: 943 76 24 91 eta 943 76 38 40.**





UBANE MADERA

Enrikeren senideak, Arrasateko alkate eta alkate ohiak eta herriko hainbat pertsona ezagunek, besteak beste, osatzen dute bilgunea.

## Enrike Letona askatzeko Bilgunea sortu dute arrastear ezagun batzuek

*Bilgune zabal eta bateratuak, hainbat ekimen antolatuko ditu*

ENEKO AZKARATE

**Enrike Letona arrasatearra aske lagatzeko Bilgunea sortu dute hainbat mondragoetar ezagunek. Aurkezpen ekitaldia eguaztenean egin zuten Arrasateko udaletxean eta han izan ziren, besteak beste, Inazio Lakuntza alkatea eta Xabier Zubizarreta alkate ohi.**

EAJ, EA, Aralar, Ezker Batua, Herri Anitza eta Zutik alderdi politikoetako ordezkariak, ELA, LAB eta ESK sindikatuak kideak eta beste zenbait gizarte eragiletako lagunek –Etxerat taldekoek, esate baterako– eta norbana-ko zenbaitek osatzen dute Enrike Letona askatzeko bilgunea. Bilgune zabal eta orekatua da sortu berri dutena, bultzatzaileen esanetan, “bilgune baterakoa eta eroso sentitzeko moduko gunea”.

### BIDEGABEKERIA SALATU

Bilgunearen helburu nagusia da Enrike Letonaren askatasuna lortzea. Baita Enrikerekin egiten ari diren “bidegabekeria edo injustizia agerian utzi eta salatzea ere”, Arrasate eta ahalik eta eremurik zabalena sentsibilizatzea Enrike jasaten ari den egoeraz, eta “bizi duen egoera gogor honetan Enrikeri elkartasuna adieraztea”.

### ASKE UTZI ETA BERRIRO ATXILOTU

Enrike Letona aurtengo maiatzean geratu zen aske, espetxean 16 urte egin eta ETAko kide izatea egotzita jarri zioten zigor osoa bete ondoren. Esan behar da, Espainiako Zigor Kode zaharren arabera, preso batek gehienez 30 urteko espetxe zigorra jaso dezakeela.

Uztailaren 31n, ordea, atxilotu egin zuten berriro, 1981ean ustez egindako delitu batengatik. Aurretik, 1979. eta 1983. urte arteko zenbait ekintzengatik epaitu eta zigortu zuten, baina orain beste frogak batzuk agertu direla dio epaileak. Preso arrasatearren abokatuak hainbat helegite aurkeztu ditu, baina atzera bota dituzte epaileak eta egun Valdemoroko espetxean dago, bakartuta.

### MEDEKUA HARTU

Bilgunearen bultzatzaileen ustez, egoera politikoak zerikusi zuzena dauka kasu honekin, baina “ikuspegi juridikotik ez dauka zentzu-

rik Enrike Letonak bizi duen egoerak”. Espelikazioren bat topatze aldera hainbat hipotesi egin dituzte: batetik, mendekuaren hipotesia, erredentzioak medio, Enrikeren 30 urteko espetxe zigorra 16 urtean bete duelako. Beste hipotesi bat da aurrekari bat sortzea, gerora beste batzuei ere zigorrak aplikatzeko. Eta azken hipotesia, betiko kartzela-zigorrena.

### HAINBAT EKIMEN

Enrike Letonaren askatasuna lortzeko hainbat ekimen bultzatuko dituzte: azaroaren 15erako manifestazio isila deitu dute Arrasaten; azaroaren 24an, berriz, Arrasateko Udalak adierazpen instituzionala onartuko du; azkenik, azaroaren 29an bertso saioa izango da.

Bestalde, esan behar da Arrasateko Udalak eskatu diola Audientzia Nazionalari bilera bat egitea kasua argitzeko, baina ez diola erantzun. Horrez gainera, bilera egin duela Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen batzordearekin.

*Espetxean 16 urte egon ondoren, aske utzi eta hilabetera atxilotu zuten berriro*

### PEOIAK

Arrasateko Udalak **peoien LAN POLTSA** bat osatu nahi du.

Interesdunak Arrasateko udaletxera etorri behar dira **azaroaren 11n, asteartea, goizeko 10:00etan** hautaketa probak egiteko.

**Oinarriak:** Udaletxean jaso daitezke edo ikusi web orrian. ([www.arrasate-mondragon.org](http://www.arrasate-mondragon.org))



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal saila ■

## Alemaniak estraditatu egingo du Paulo Elkorok bergararra

*Herenegun eman zuten epaia Auzitegi Konstituzionalak*

M.B.

**Alemania Auzitegi Konstituzionalak onartu egin du Paulo Elkorok bergararra estraditatzeko Espainiako agintariak egindako eskaera. Elkorok irailaren 4a ezkerreko helegitea aurkeztuta zeukan, eskaerak aurrera egin ez zezan.**

Herenegun, eguaztena, eman zuten epaia Alemanian Auzitegi Konstituzionalak Elkororen familiakoek azaldu dutenez. Haren abokatuak fax bidez jakin zuten herenegun iluntzean Konstituzionalaren erabakia, eta familiakoei hots egin zien haren berri emateko.

Irailaren 4a ezkerreko zegoen erabakiaren zain. Urtarrilaren 21ean atxilotu zuten Nurenberg hirian. Handik gutxira bi estradizio eskaera egin zituen Espai-

niako Estatuak, eta nahiz eta Elkorok helegitea aurkeztu Nurenbergeko epaitegian, honek onartu egin zituen eskaerok. Hori horrela, Auzitegi Konstituzionalera jo eta beste helegite bat aurkeztu zuten Elkorok irailaren 4an.

Bitarte horretan hilabeteko gose greba ere egin du Elkorok, batik batik, Alemanian Estatuaren inplikazioa salatzeko eta Alemanian libre bizi ahal izateko eskubidea aldarrikatzeko. Izan ere, Espainiako agintariak egindako estradizio eskaerak ez dute oinarririk Elkororen esanetan: eskaerok egiteko aurkeztu zituzten frogak komisarian atxilotu batek torturapean eginiko deklarazioan oinarritzen zirelako.

Noiz estraditatu dute oraindik ez dakite familiakoek. Dena dela, astelehenean Munchera doaz bisita ordua dutelako Elkororekin.



### Juan Jose Iribecampos, enpresaburu onena

Condesa enpresako Juan Jose Iribecampos mondragoetarri (argazkian, ezkerrean) eman diote oraingo astean Euskal Enpresaburu Onenaren saria. Astelehenean eman zioten saria, Bilboko Arriaga antzokian, *Euskal Enpresaren Gaua* izeneko ekitaldian. Jaurlaritzak, Euskadiko Kutxak eta Enpresa XXI-ek antolatzen dute sariketa. Metagra enpresa bergararra ere bazegoen finalisten artean. Legutianon dago gaur egun Condesa enpresa familiarra, baina Arrasaten sortu zen. Europako altzairuzko hodian ekoizle ahaltsuena da. 17 lantoki ditu Europar barrena. 2.700 langile. Eta bi milioi tona altzairu lantzen ditu urtero. /E.A.

### ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAK

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN lan poltsa bat sortu nahi da.

#### Baldintzak:

- Batxilergoa, Eskola Graduatua, LH I edo baliokidea
- Euskara jakitea, 3. HEren parekoa.

**Izena emateko epea:** Azaroaren 1etik 10era arte.

**Oinarriak:** Udaletxean eta web orrian jaso daitezke: [www.arrasate-mondragon.org](http://www.arrasate-mondragon.org)



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal saila ■





Kote Olaizola Foru Aldundiko Lur eta Garraio zuzendariarekin batu ziren eguaztenean, Gatzagan, ibarreko udaletako ordezkariak.

## Garraioaren arazoa lehenbailehen konpontzeko konpromisoa hartu dute

*Lantaldeak osatuko dituzte arazoari jarraipena eginez irtenbidea topatzeko*

MIRARI ALTUBE

**Ohiko batzarra egin zuen eguaztenean Mankomunitateko gobernuak Gatzagan. Batzarreko lehen gaia ibarreko garraio arazoa izan zuten, eta udaletako ordezkariarekin hitz egitera Foru Aldundiko Lur eta Garraio zuzendaria hurreratu zen.**

Ibarreko udal guztietako ordezkariak batu ziren eguaztenean Gatzagako udaletxean. Ohiko batzar orokorra zuen Mankomunitateko gobernuak. Batzarrean, oster, azken asteotan bazterrak harrotu dituen gaia zuten lehenengo hizpide: ibarreko garraio arazoa. Horren inguruko azalpenak emateko Gipuzkoako Foru Aldundiko Lur eta Garraio zuzendaria izan zuten, Kote Olaizola.

### EPE MOTZERAKO IRTENBIDEAK

Arduratuta daude Debagoieneko alkateak ibarrean garraioarekin dugun arazoa ikusita. Horren aurrean Foru Aldundiak zein jarrera duen jakin gura zuten, eta, hala, Kote Olaizola azalpenak eman eta alkateen kezkak entzuteraz etorri zen.

Foru Aldundian arazoaren berri badutela eta irtenbide bila dabiltzala esan zien Kote, eta irtenbideok zentzuzkoak izateaz gain epe motzera begira behar direla gaineratu zien. Eskaintza ona egin bai, baina herritarrek garraio publikoa erabiltzera bultzatuko dituen ekintzak ere beharrezkoak direla uste dute Lur eta Garraio Sailean; izan ere, nork bere automobila erabiltzera ohituta daude herritarrek.

Arazoari aurre egiteko lantaldeak osatzekotan geratu ziren.

Batetik, Foru Aldundiko Lur eta Garraio Sailean aztertuko dute arazoa; eta bestetik, Mankomunitateak berak egingo dio jarraipena. Lehenengo azterketak egin ostean, beste bilera baterako hitzordua jarriko dute.

### TRANBIA ETA AUTOBIDEA

Aspalditik dauka Eusko Jaurlaritzak tranbiaren proiektua ibarrerako, eta Eibar-Gasteiz autobidea ere etorriko da urte batzuk barru. Tranbia autobus zerbitzuekin batera eskaintza polita izan liteke, baina epe luzera. Hortaz, Foru Aldundiaren ustean, ez bata ez bestea ez dira

momentu honetan dagoen arazoaren konponbide.

Herritarrek eurek ere zeresan handia daukate auzi horretan. Izan ere, garraio publikoak arrakasta izan dezan ez da eskaintza on bat bakarrik behar, herritarrek erabiltzera ohitu beharko dute. Gatzagan batu zirenen ustean, herritarrek nork bere automobila erabiltzera daude ohituta eta hori aldatzea ez da batere samurra izango. Neurri zorrotzak hartzeko gertu azaldu zen Kote Olaizola.

Hori guztia lantaldeetan aztertuko dute orain, lehenbailehen topatzeko irtenbidea.



**KOTE OLAIZOLA**  
LUR ETA GARRAIO ZUZENDARIA

*"Ibarrean gaur behar dituzue irtenbideak"*

**Ibarrean garraioarekin dugun arazoz jabetuta zaudete?**

Bai, horixe. Izan ere, Gipuzkoa osoan dugu arazoa, eta Debagoienekoa historikoa da. Gipuzkoan batetik bestera joateko %76k nork bere autoa hartzen dute; horrek errepide-sarearen moteltzea dakar eta garraio publikoan eragina dauka.

### Zelan konpondu?

Garraio eskaintza ona egitea beharrez-

koa da, baina ez hori bakarrik, beste hainbat erabaki hartu beharko dira; batzuk, gainera, zorrotzak izan daitezke.

**Eusko Jaurlaritzak duen tranbiaren proiektua bultzatuko duzue?**

Irtenbide bat da; Diputazioak eskaintzen duen autobus zerbitzu publikoari tranbia zerbitzua gaineratuta eskaintza polita izango genuke, baina epe

luzera begira. Zuek gaur behar dituzue irtenbideak.

**Autobideak ibarreko zirkulazioa arinduko duen itxaropena duzue?**

Bai, arindu egingo du, baina era berean argi daukagu ez dela arazo guztien konponbidea izango. Garraioaren arazoan herritarren jokaerak ere zerikusi handia dauka, nork bere autoa hartzera ohituta gaudelako.

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Joan zen zapatukoa, urriaren 25ekoa, azken 63 urteotako egun hotzena

Joan zen zapatu goizaldean izotza egin zuen ibarreko hainbat bazterretan. Gradu bat zero azpitik jaso ziren Bergarako San Juan auzoan. Temperatura baxua eta ezohikoa da hori sasoi honetarako. Izan ere, 1940a ezker ez da hain temperatura baxurik jaso urrian. Beraz, aurtengo urriaren 25ekoa historiara pasatuko da, egin zuen hotzagatik. Baina giro freskoagatik ez ezik euriagatik ere nabarmendu da oraingo astea. Egunero egin du euria eta joan zen eguaztenetik, 22tik, martitzenera arte 58,5 litro metro koadroko jaso dira gure ibarrean. Kontatzeke dago eguazten eta eguenean egin zuen euria, biak hala biak oso egun euritsuak.

### Realeko presidentek egingo du Bergarako UNEDeko ikasturte hasierako hitzaldia

Jose Luis Astiazaranek, Realeko presidentek, egingo du Bergarako UNEDeko ikasturte berriaren irekiera ekitaldiko hasierahitzaldia. *Sentipen baten profesionalizazioa* gaia izango du hizpide. 19:00etan izango da, Bergarako udaletxean. Horrekin batera aurreko ikasturtean ikasketak bukatu zituzten ikasleei diplomak banatuko dizkiete. Ekitaldian izango dira, besteak beste: Jon Barrutia, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitateetako sailburuordea; eta Joxe Juan Gonzalez de Txabarri, Gipuzkoako diputatu nagusia.

### 'La pelota vasca' ikusteko aukera egongo da asteburuan Arrasateko Amaia antzokian

Bergarako Novedades da Debagoienean zabalik dagoen zinema areto komertzial bakarra. Eta Novedades aretoan ikusteko aukera izan zen orain dela aste bi Julio Medemen azken pelikula. Jende pilo joan zen, gainera, dokumentala ikustera. Oraingo asteburuan, berriz, Arrasateko Amaia Udal Antzokiak atek zabalduko ditu *La pelota vasca* ikusteko, zapatuan, domekan eta astelehenean, hain zuzen ere. Zapatuan, 19:00etan eta 22:00etan; eta gainerako egunetan, 19:00etan bakarrik.

## URTEURRENA

**URTEKO PREZIORIK ONENAK!!**  
(ALDE HANDIAREKIN)



**EROSKI BIDAIAKek urteak egiten ditu, eta handikiro ospatu nahi du.**

**Eskaintza bikainak kaleratuko ditu horretarako: Kanarietara, Karibera, Europara, Kostaldeetara... Kaleratu ahala kentzen dizkigute esku artetik.**

**Eskaintza horiek 2004ko udaberrira arte izango dituzu!**

**Erreserbatu itzazu orain zure oporrak.**

**EZ DUZU URTE OSOAN HORRELAKO PREZIORIK IKUSIKO.**

**Viajes Eroski**  
Bidaiak

Grupo Eroski

Kalitatea Bermatuta

Calidad Turística

EROSKI

Bai Eroski Bidaiak

eskaintza gehiago [www.viajeseroski.es](http://www.viajeseroski.es)

EROSKI BIDAIAK

EROSKI BIDAIAK



## ANTZUOLA

**Anelkarrek batzarra egingo du, bost urteotako balantzea egiteko**

Anelkarrek batzarra egingo du azaroaren 15ean, bost urte hauei begiratua egiteko. Gero, babarrun-jana egingo dute. Herritar guztiak daude gonbidatuta. Itzar liburu dendan eman behar da izena, azaroaren 10a baino lehen, eta 20 euro ordaindu; batutako dirua Kongora bidaliko dute.

**IRUNBERRIRAKO, 864 EURO**

Idolaz-ek, bestalde, zapatuan Nafarroa Oinez jairako batutako diruaren berri eman digu: guztira, 864 euro batu zituzten zapatu gauean, antzerki emaldirako sarreran. /A.I.



AED ELKARTEA

## ARRASATE

**AED elkarteak abiarazi du Jokin Zaitegi itzulpen lehiaketa**

AED elkarteak Jokin Zaitegi itzulpen lehiaketa antolatzen dabil azken urteotan. Hasieran, elkarteak berak gai zehatzak ipintzen zituen itzultzeko. Gero, itzultzeko gaiak libre utzi zituen, eta azken urteotan, Literaturako Nobel sarrituen lanak itzultzea erabaki zuten. Hala, aurtengo edizioan John Maxwell Coetzee idazle hegoafrikarraren *Disgrace* eleberria itzultzea erabaki dute. Lehiaketan parte hartu gura dutenek liburu horren lehengo sei orriak euskaratu beharko dituzte eta egindako lanaren hiru kopia bidali AEDra, 2003ko abenduaren 10a baino lehen. Epaimahaiak jasotako itzulpenak aztertu eta haietako bat izendatuko du irabazle, 2004ko urtarrilaren amaiera baino lehen. Irabazleak 4.200 euroko saria irabaziko du eleberri osoa itzultzeko. /U.M.

## ARAMAIO

**Bi bertsolari aramaioar, gazteendako Bagare lehiaketan**

Guztira 20 bertsolari gaztek parte hartuko du aurtengo Bertsoan Bagare izeneko lehiaketan. Tartean, Manex Agirre eta Andere Arriolabengoa izango dira. Lehiaketa horretan hiru kanporaketa jokatu dituzte; bakoitzetik bi bertsolari pasatuko dira finalera. Hala, Manex Agirrek gaur jokatu du kanporaketa, Araian, Zubigain jatetxean, 20:30ean. Eta Andere Arriolabengoa azaroaren 21ean izango du proba, Legutianon.

Finala Gasteizen izango dute, azaroaren 27an, Beñat Etxepare antzokian. /U.M.

## ELGETA

**Autobus zerbitzu gehiago eskatu dituzte langileek eta ikasleek**

Garraio publikoaren arazoari buruzko galdeketa zabaldu zuen Elgetako Udalak. Erantzunak jasotzeko epea amaituta ehunetik gora orri batu dituzte. Erantzunak askotarikoak izan dira eta hiru multzotan banatu dituzte: alde batetik, enpresetara joaten den jendearen eskariak daude; bestetik ikasleek; eta hirugarrenik, osasun etxetara joaten direnena. Irtenbidea aurkitu nahian, Elgetako alkatea Foru Aldundiko garraio arduradunarekin izan zen joan zen astean. /I.A.

## OÑATI

**Zazpi komertzio berri zabaldu dituzte herrian 2003. urtean barrena**

2003ko ia hamar hilabeteotan zazpi komertzio berri zabaldu dituzte herrian, iazko urte osoan baino hiru gehiago, hain zuzen ere.

Bi oinetako denda, arropa denda bat, jostailu denda bat, urdaitegi bat, hortz-klinika bat eta logopedia zentro bat, hain zuzen ere, jarri dituzte. Bestalde, taberna bat eraberritu eta berriro zabaldu dute.

Iaz, 2002an, lau komertzio zabaldu zituzten: argazki denda bat, optika bat, bidaia agentzia bat eta arkitectura estudio bat.

Itxi, berriz, denda bakarra itxi dute 2003. urtean.

Badirudi, beraz, mugimendu handia dagoela azkenaldian herrian, komertzioari dagokionez.

**LASTER, KOMERTZIO GEHIAGO**

Aipatzekoa da, bestalde, komertzio berriak zabalteko eskaera gehiago ere badagoela; besteak beste, fisioterapia zentroa, arropa denda eta kirol jantzien denda jartzeko baimen

eskaerak aurkeztu dituzte hainbat herritarrek azkeneko hilabeteotan.

**TXANDAKOAK EZ DAUDE POZIK**

Txanda dendarien elkarteak kideak, hala ere, ez daude pozik aurten lortzen emaitzekin. Txandako arduradunen esanetan, saltzaileak arduratuta daude; izan ere, aurreko urteekin alderatuta, salmentak asko jaitsi dira, eta horren zergatiak zeintzuk diren ez dakite. Hortaz, komertzio berriak zabaldu bai, baina lehendik zeudenek ez dute emaitza onik lortu 2003. urtean barrena. /AINTZANE IRIZAR

**Zertzelada**

Iaz, 2002an, lau komertzio zabaldu zituzten eta aurten, zazpi; gainera, komertzio berriak zabalteko eskaera gehiago ere badago.

## BERGARA

**Ibar osorako zerbitzua emango duen bulegoa zabalduko du AGIFESek**

AGIFESek, Gipuzkoako Senide eta Eri Psikikoen Elkarteak, bulegoa zabalduko du Bergaran, Irizar jauregiaren bigarren solairuan, hain justu ere -Barrenkalea 33-. Udalak laga dio lokala eta elkarteak kideen esanetan datoren hilean zabalduko dute, nahiz eta egun zehatzik ez duten eman; izan ere, hobe-

kuntza txiki batzuk egingo dituzte egoitzan.

Batik bat, sendian gaitxo psikikoak dituzten familiakoei laguntzea du helburu elkarteak, eta orain arte Donostiara joan behar izaten zuten, bulegoa han dutelako. Bergarako bulegoarekin hutsune hori bete eta zerbitzu erosoagoa eman nahi dute. /M.B.



MONIKA BELASTEGI

Barrenkalea 33n jarriko dute bulegoa, Irizar jauregiko 2. solairuan.

## ARETXABALETA

**Aralar alderdiak prentsaurrekoan baloratuko du orain arteko lana**

Aretxabaleako Aralar alderdiak prentsaurrekoa egingo du datorren astelehenean, hilak 3, 18:00etan, udaletxe zaharrean. Deialdiaren helburua da agintaldiko lehen hiru hilabeteen balorazioa egitea.

Gobernu batzordean sartzeko erabakiaren eta gainerako alderdiekin gaur egun dituzten harremanen gainean egingo dute berba prentsaurrekoan. Horrez gainera, beste hainbat gairen inguruan Aralarrek zein ikuspuntu duen azalduko dute. Alderdiak hiru zinegotzi ditu gaur egun Udalean. /A.I.

## ESKORIATZA

**Mozio bat eta beste hainbat gai izan zituzten atzoko ohiko osoko bilkuran**

Atzo, egunena, ohiko osoko bilkuran egin zuen udalbatzarra. Eguneko gai zerrendan 13 puntu izan zituzten onartzeko. Horietako batzuk diru kontuak izan ziren: besteak beste, kredituak aldatzeko eta 2004rako ordenantza fiskal berria ezartzeko prozesuak ireki zituzten. Bestalde, garapen jasagarriaren aldeko apustua eginez, Tokiko Agenda 21 programarekin hasia onetsi zuen Udalak. Bilkura amaitzeko, bikote homosexualen adopzio eskubidearen alde EA-EAJk aurkeztutako mozioa onartu zuten. /A.I.

## LEINTZ GATZAGA

**Ikusteko ugari prestatu dituzte datozen San Milixanetarako**

Ohiturari eutsiz azaroko bigarren domekan San Milixan azoka egingo dute Leintz Gatzagan. Horrela, datorren azaroaren 9an Euskal Herri osotik etorritako hamasei artisauk goizetik iluntzera arte euren lanak erakutsiko dituzte. Eta artisauen lanaz gainera, beste gauza ugari ere prestatu dituzte antolatzailuek: gazta egiteko prozesua eta forja-lana zelan egiten den ikusi ahal izango dira, besteak beste. Sorginak emakume taldeak, bestalde, azoka egunerako sendabelarren gaineko erakusketa antolatu du.



**A**utodeterminazioa gaitzat hartuta hitzaldi zikloa antolatatu du Mondragoetarrak taldeak. Aste honetan Gain (Analisi Internazionalerako Euskal Kabinetea) elkarteko Gabirel Ezkurdiak autodeterminazioaren subjektuari buruz egin du berba Arrasaten. Nazioarteko gaietan aditua da Ezkurdia eta autodeterminazio egoera hainbat herrialdetan aztertu du.

IRATI AGIRREAZALDEGI

### Nor da autodeterminazioaren subjektua?


Nazioarteko esperientzietatik abiatuta norberak ikusten du nola ulertu behar diren Euskal Herriarekiko paralelismoak. Batetik, Esloveniako independentzia prozesua mahai gaineratu genuen, bertan gizarte mugimenduak garrantzi handia izan zuelako, alderdi politikoena baino handiagoa. Bestalde, subjektua definitzeko bi teoria erabili ohi ditugu: Estoniako eredua, subjektua definitzeko hizkuntza araberako logika erabiltzen duena eta estatu zentralek horren aurrean erabil ditzaketan estrategiak, hau da, nola subjektua manipulatzeko duten. Horretarako, serbiar nazionalismoak Kosovon eta Kroazian erabilitako politika bikoitza azaltzen dugu.

### Beraz, Euskal Herrian zein litzateke autodeterminazioaren subjektua?

Herri bakoitzak bere nortasunaren eta egoeraren arabera definitu behar du subjektua. Nire ustez oso erakargarriak dira nazioartean gertatutakoak, bide asko irekitzen dizkigutelako. Agian, Euskal Herrian ezin dira planteatu, baina adibide bat Estoniako kasua litzateke. Bertan bi hizkuntza zeuden, estoniera eta errusiera. 1991n independentzia aldarrikatu zutenean, populazioaren %40 errusiarra zen, eta horiek ez zekiten estonieraz. Hiritartasun osoa lortzeko hizkuntza azterketa bat gainditu beharra dago; beraz, populazioaren %40 horrek ez lituzke eskubide zibil guztiak izango. Baina azterketa orain eginez gero ikusiko genuke populazioaren %89 elebiduna dela. Beraz, subjektua zein den jakiteko, herri mugimenduek eta eragile politikoez ezbaidak bultzatu beharko lukete.

### Zertaz ari gara autodeterminazio eskubideaz hitz egiten dugunean?

Nazioarteko zuzenbidean onartzen den printzipio bat da. Horren arabera komunitate batek eskubide osoa izan behar luke erabakitze nola eta norekin antolatatu nahi duen. Eskubide demokratiko hori modu gordinean zoragarria da, baina kontuan hartu behar da nazioarteko legediak beste elementu batzuk dituela eta gaur egungo egoeran oso zaila dela estatu baten mugak aldatzea. Ondorioz, autodeterminazio eskubidea prozesu logiko batekin lotzen dugu. Hau da, globalizazio prozesua oso konplexua da esparru guztiak lotzen dituelako, eta eredu hori inposatu nahi zaio planeta osoari. Inposaketa horrek identitate eta herri txikien desagertzea ekarriko du. Datozen 60 urteotan munduko 4.500 hizkuntza eta kultura desagerraraziko ditu globalizazioak. Horren aurrean eragile garrantzitsuena borroka identitarioa da. Lehen munduko herri txiki batek,



GOIENKARIA

## Gabirel Ezkurdia

NAZIOARTEKO HARREMANETAN ADITUA

# “Autodeterminazioaren subjektua herriaren nortasun eta egoeraren arabera definitu behar da”

### GLOBALIZAZIOA

**“Datozen 60 urteetan munduko 4.500 hizkuntza eta kultura desagerraraziko ditu globalizazioak, eta horren aurrean eragile garrantzitsuena borroka identitarioa da”**

### IBARRETXE PLANA

**“Autodeterminazioak, teorian, ez du lekurik Ibarretxe Planean, baina prozesuaren planteamendu eta erreakzioen arabera berbidera daiteke eta autodeterminazio prozesuan bukatu”**

Euskal Herriak adibidez, aukera gehiago ditu Amazoniako herri batek baino, teknologia aldetik, esaterako garatuago dagoelako. Horren harira, autodeterminazioaren aldeko borroka borroka inperialista eta antikapitalista da.

**Borroka horrek norbanakoarena ala kolektiboa izan beharko luke?**

Borroka biak gurutzatu beharko litzateke. Borroka kolektiborako banakakoaren borroka funtsezkoa da. Amerikaniza-

zio prozesuan kontsumoa da erabiltzen den elementu nagusia, norbanakoaren kontsumoa, hain zuzen ere. Aisialdia eta eguneroko bizitza kontsumoaren inguruan antolatzen du norbanakoak eta hortik abiatuta etortzen zaizkio beste kezka guztiak. Gaur egun, zenbait komunitateri eskubide kolektiboez hitz egitea zaila da, ez dute-eta ulertzen, jende askok ez dakite autodeterminazioa zer den ere. Beraz, horiei gauzak beste modu baten azaldu

behar zaizkie, interes materialagoak dituztelako.

**Hainbat herrialdetan autodeterminazioaren gaineko kontsultak egin dira. Nori galdetu behar zaio gai horri buruz, norbanakoari ala herriari?**

Hori eragile politikoez edo instituzionalak definitu beharko lukete. Baina Euskal Herrian egoera konplexua bizi dugunez, irizpide batzuk markatu beharko litzateke, zenbaite demokratikotzat hartzen dituzten estatuak: Ameriketako Estatu Batuak, Frantzia, Espainia, Alemania... Horiek subjektua nola definitzen duten hartuko litzateke kontuan. Esaterako, hizkuntza proba bat beharrezkoa da hiritartasuna lortzeko. Estonian, adibidez, hiritartasun osoa dute bertan jaio eta II. Mundu Gerran bizi izan zirenak, baita euren semeek eta ilobek, hizkuntza ez jakin arren. Handik aurrera hizkuntza proba egin behar dute. Espainian antzeko eredu erabiltzen da: hizkuntza proba gainditzeaz gain, Espainiako historia ezagutu behar da eta gutxieneko epe batean bertan bizi hiritartasuna lortzeko.

**Batzuek diote autodeterminazioak federalismoaren eskutik etorri behar duela.**

Autodeterminazioa da eskubide bat, gure etorkizuna aukeratzeko daukaguna, eta federalismoa antolatzeko modu bat. Horren aurrean arazo bat dago: planteatzen diren alternatiben artean independentistek ez dute inongo aukerarik planteamendu bat eskaintzeko beste bideak jorratzen badira, berdin federalismoa edo baita orain daukaguna ere. Beraz, autodeterminazio eskubidea ildo horretatik doa: galdetu ostean demagun populazioaren %60k estatu independentea sortu nahi badu, eskubidea izan beharko luke hori gauzatzeko.

**Zein leku dauka autodeterminazioak Ibarretxeren Planean?**

Teorian ez du inongo lekurik. Ibarretxeren planak planteatzen du euskal gizarteari galdetzea zer iruditzen zaion beste parametro batzuetan Espainiarekiko daukan mendekotasuna bideratzea. Baina Ibarretxe Planearekin zabaltsen den prozesua planteamendu eta erreakzioen arabera agian bidera daiteke, eta autodeterminazio prozesu izaten bukatu.

**Autodeterminazioa lortuz gero sortuko litzatekeen egoera pareka daiteke beste herrialderen batekoarekin?**

Autodeterminazioaren ildotik, benetan demokratikoki kontsulta bat egingo balitz Europako Batasunaren barnean, eta estatu bat izango bagina, parekatuko ginateke beste estatu batzuekin. Edozelan ere, autodeterminazio eskubideak ez du ziurtatzen independentzia prozesurik. Beraz, gerta liteke gaurko egoera indartzea edo federalismoa bultzatzea. Autodeterminazioaren logika oinarritzkoa da. Autodeterminazioa definitzen dugun unean ikusiko dugu nora goazen edo zer egiten dugun. Baina urte askoan Euskal Herriak ez du izan modurik askatasunez erabakitze.

**Nola uzta daiteke Euskal Herriaren autodeterminazioa Frantziarekiko eta Espainiarekiko harremanekin?**

Demokraziaren ildotik. Espainia eta Frantziaren egitura politiko estatalak ez dira demokratikoak. Konstituzio espainiarra, adibidez, guztiz totalitarioa da. Lehen artikulua dena esaten du: “Espainia bakarra eta banaezina da”. Horren arabera ezinezkoa da beste planteamendu bat egitea. Ondorioz, oso zaila da adostasun bat lortzea. Eragile politikoez egin beharko lukete indarra. Interesgarria litzateke autodeterminazioaren aldeko mugimendu zibiko askotariko eta heterodoxoa sortzea Euskal Herrian, Irekia izanik jende askoren zilegitasuna eskuratzeko lukeen mugimendua.



## Zabalik

ELENA  
LAKA

## Pilota harra

Jende ugari domeka gauean Bergarako zine hotzean. Beste herri askotan gertatu zen bezala, *Euskal pilota* filmak ikusmina sortu zuen geurean.

Pelikula anitza, beharrezkoa, hunkigarria. Nire iritziz, herri honetan mugitzen garenontzat gauza jakina, baina hala ere esan beharrezkoa. Turismo bulegoko estetika larregikoa, behar bada. Eta inori entzun ez diodana: androzentrikoa. Alegia, Euskal Herri hau gizonez osatutako gizartea da, solaskideak gizonak dira, eta konponbidea gizonen iritzi eta jokaeren eskutik etorriko zaigu. Emakumeak ikusle hutsak dira, iritzi emaile bat edo beste, eta batez ere, filmean agertzen denez, biktima. Izotz mendi bat itsaso zabal batean.

Ez nuen kontatu, baina filmean berbetan agertzen diren gehienak gizonak dira. Tartekatuta agertzen diren euskal kirolarien irudietan ere, guztiak dira gizonak. Inoiz pospolin pinpirinen bat edo emakumeren bat txaloka. Eta detailtxo bat: Eguzkitzek bertsotan hika egiten dio Euskal Herriari, konplizitateko hika maskulinoan. Gure herri zaharra, gure herri harra.

Euskal gizartea horrelakoa da, badakit. Pantailan agertzen ziren guztiak zeukaten zer esana, ondo ekarrira zeuden. Esateko zerbait dutenek gizonak dira, antza. Horrela da, naturala da, inori ez dio atentzioa deitzen, zer inportako da, esango du beste batek. Feminista historika deituko digute errealitatea genero berdintasuneko prismatik begiratzeko dugun lau emakume neurotikori.

Gogoan daukat uda sargorian Maialen Lujanbiok idatzitakoa *Berria*-n. Oker ez banago, euskal gizartea (ez ote zuen gatazka idatzi) desberdina izango litzatekeela emakumeen ahotsa entzuten hasiko balitz. Euskal gizarteak, baina, eta Medemek horren islan, ez dute gauza berdina pentsatu nonbait.

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:  
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA  
Telefonoa: 943 76 92 71  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: goienkaria@goiena.com



## Isolamendu politikorik ez

Frantzia eta Espainiako Estatuaren proiektu ukatzaileak Euskal Herriaren izatea bera ukatzen dute, Euskal Herriari bere buruaren jabe izatea ukatu egiten diote, Euskal Herriari kanpo injerentziarik gabe bere etorkizuna eraikitzea ukatu egiten diote. Eta hortik sortzen da gatazka politikoa, erabakitze ahalmen horren ukazioa baita gatazkaren iturburua. Injustizia horren aurrean zutitu eta errebelatu egiten diren herritarrak kartzelaratu dituzte. Azken urteetan, gainera, nazio eraikuntzan lanean ari diren ehunka herritar atxilotu, torturatu eta kartzelaratu egin dituzte.

Euskal Herria salbuespen egoeran ezarria dute bi estatuek; antolaketa politiko eta sozialak legez kanpo jartzen eta jazaritzen dituzte, hedabideak itxi, elkarretartzeak debekatu eta apaldu, milaka herritarren bozak balio gabetu. Horren guztia onduz, inoiz baino preso politikoko gehiago daude bi estatuen exterminio kartzeletan.

Errepresaliatu politikoa hauek Euskal Herriaren askapen prozesuari beraien ekarpena egiten jarraitzeko asmoz, berrantolatu dute beraien burua, Euskal Preso Politikoen Kolektiboa osatuz. Garbi dago, beraz, kolektibo horren izaera politikoa. Euskal Herriaren ukazioa da hauek kartzelan egoteko arrazoia, ez besterik.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak, ekainean Anoetako belodromoan eginiko aurkezpenean, Euskal Herriaren askapen borrokan eta sortzen diren egitasmo orotan eragile izateko asmoa azaldu zuen. Gainerako eragile sozio-politikoekiko harremanak bideratzeko mintzakideak ere antolatutak dituzte; mintzakide hauek, sakabanatua eta urrundua duten kolektiboaren ordezkari eta ahotsa izango direlarik. Euskal Herriaren zampaketa amaitzean kartzelak hustu egingo dira, baina bitartean, preso egonik ere, dituzten eskubide politikoa aldarrikatzen dituzte.

Aldarrikapen hori izan zen urri hasieran burutu zuten itxialdi eta komunikazio grebaren arrazoi nagusia. Itxialdi horren bidez, Euskal Herriak jasaten duen salbuespen egoera salatu eta sakabanaketaren bidez kolektibo honi ezartzen dioten isolamendu politikoa gainditu nahi du presoen kolektiboak. Sakabanaketarekin amaitu behar da, eragile politikoa hauek Euskal Herriaren eraikitze prozesuan parte hartzeko duten eskubidea bermatua izan dadin. Beraien eskubidea delako, Euskal presoak Euskal Herrira!

DEBAGOIENEN ASKATASUNA  
Debagoiena

## Elgetako Espaloia Kafe Antzokiaren alde

Gutun honen bitartez, Elgeta Auzolanian herri plataformak Espaloia Kafe Antzokiaren gainean kalean ipinitako karteletan erantzun gura diogu EAJ-EA eta Aralar zinegotziok. Gaia aztertze zinegotzi guztiok (Eduarne Alberdi Elgeta Auzolanian-ekoa ere bai) egin genuen batzarrean harritu egin gintuen Elgeta Auzolanian proiektuaren kontra zegoela entzuteak. Kalean ipinitako karteletan gure harridura areagotu besterik ez dute egin.

EAJ-EA eta Aralar zinegotziok esan gura dugu, Espaloia Kafe Antzokiaren proiektua herrian kultura sustatzeko ezinbesteko proiektu moduan ulertzen dugula.

Bestalde, Elgeta Auzolanian-ek egingako galderei erantzunez, argi laga gura dugu honakoa:

- Espaloia kultura ekitaldietarako egokitua geratuko da. Argi, soinu eta taula gaineko elementuekin. Soinu probak egin ostean, aretoa bera ere egokituko da.

- Elgetako etorkizun kulturala ez dago jate bati begira. Jate bati ateratzen den dirua horretarako ere erabiliko da eta lagunduko du areto horrek dituen gastuak apaltzen. 80 milioi pezeta, aurreko agintalditik daude inbertituta eta orain gune hori kudeatzeko jarriko dira gainontzekoak.

- Espaloia herritarrek erabiliko dute. Horixe dago jasota Kultura batzordean, Goibeko elkarteak aurkeztu zuen dokumentu zabalean. Hori legalki ziurtatzeko baldintza pleguak lantzen ari gara bai EAJ-EA eta baita Aralar zinegotziok.

Udalan %77,5eko ordezkariak dugun alderdiok begi onez ikusten dugu proiektua. Gu ados gaude proiektuarekin, eta arriskuak arrisku, aurrera egitea pentsatu dugu herritarren onerako izango dela pentsatuz.

Animatzen ditugu hau irakurririko duten guztiak desberdintasunak alde batera laga eta kulturaren alde egitera, Elgetan sortuko den kulturagune berriaren alde.

ELGETAKO ARALAR ETA EAJ-EAKO  
ZINEGOTZIAK  
Elgeta

## GOITB kentzen?

Irakurri ditut GOIENKARIAN hainbat artikulu Euskaltel zabaltzen ari den zuntz optikoaren gainekoak. Oker ez banago, Goiena eta Euskaltel harremanetan izan dira behin baino gehiagotan Euskaltel sar dezan bere kable bidezko telebistaren eskaintza Goiena Telebista. Baina, gaur da eguna oraindik ezin daitekeena ikusi kable bidez Goiena Telebista. Ikusi daitezke, ordea, gure ibarrekoak ez diren beste "tokiko" telebista batzuk: Teledonosti eta Localia TV, gaztelaraz emititzen dutenak.

Iruditzen zait larria dela gertatzen ari dena, hau da, lehendik GOITB ikusten zuten eta Euskaltelen eskaintza onartu duten hainbat etxetan, ezin dutela GOITB ikusi. Larriagoa da arazoa, iruditzen zaidalako Euskaltel ari dela "kentzen" ibarreko euskara elkarteek eta udalek bultzatzen eta diruz laguntzen duten telebista. Horregatik eskatu nahi diot Euskalteli egin dezala lehenbailehen egin beharrezko lanak eta inbertsioak, GOITB ere bere kable bidezko telebistaren eskaintza sar dezan.

M. UNAMUNO  
Bergara

## Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE





## Eztabaida

**E**uskal Herriak dituen gatazketako bat burujabetza nahiak sortutakoa da. Abertzaleak independentziaren alde azaldu ohi dira gehienez, baina aurkako jarre-

ra agertu duenik ere bada. Ibarretxek bere plana aurkeztu duenetik, gainera, burujabetzaren gaineko eztabaida gero eta gehiago zabaldu da. Eztabaida hori gure orrien bitar-

tez zuenganatu nahi izan dugu eta horretarako burujabetasunak hobera zein txarrera eramango gaituela dioten bi debagoiendarrek euren iritzia eman digute.

# Euskadi burujabe izango balitz, hobeto ala okerrago biziko ginateke?

## Euskadiren irtenbidea, European integratzea



BLANCA RONCAL  
PSE-EEko Euskadiko  
Komisio Exekutiboko  
idazkaria

**E**uskadi gizarte moderno bat da, arazo modernoak dituena: lana, gazte eta emakumeen gizarteratzea, pentsioen bermea, hezkuntza eta osasunaren sostengua, zerbitzu publikoen garapena herritarren beharren arabera... Arazo horiek ez dira kontontzen independentzia bezalako iraganeko proposamen batekin, etorkizuneko proposamenekin egin behar zaie aurre erronkei.

Horretarako gakoa integrazioa da. Euskadik duen biztanle kopuruarekin,

European integratzeko pisu sozial handia du. Europa barruan zerbitzuak, hezkuntza, lana, gazteen gizarteratzea, osasuna... bermatuta daude. Europarekin konbergitu behar dugu gizarte gastuan, Europak arazo horiek guk baino hobeto ateratzen baititu aurrera. Gainera, Europaren bitartez munduko gainontzeko tokietan integratuko ginateke. Izan ere, Europak osotasun bezala duen erronka mundu globalizatu batean parte hartzea eta munduko arazoak ebatzen laguntzea da.

Gaur egun ez dago esparru opakurik non edonor ezkutatatu eta mundutik isolatu daitekeen. Beraz, Euskadin egingdako edozein ekintzak eragina du Errumanian zein Asian.


Honela, bada, irtenbidea European integratzea da eta hortik abiatuta munduko irregularitasunak eta bidegabekeriak ebatzea. Munduko bakea arriskuan baitago. Teorikoki lokalak diren gatazkak orokortu egiten dira. Ekialdeko arazoak, esaterako, denongan du eragina ondorioak etxeko atariraino iristen diren neurrian.

Maila horretako arazoak ezin dira ebatzi burujabetza bezalako irtenbideak planteatuz. Horrek erabakiak hartzeko orduan nazioarteko zirkuituetatik aterako gintuzke, eta ez genuke inolako bermerik izango ez gure arazoak ezta bizi-lagunenak ere konpontzeko.

Ondorioz, burujabetza ez dut irtenbide posibletzat ikusten. Gaur egun inork ez baitu txarrera eramango gaituzten erabakiak hartzerik nahi. Beraz, zaharkitutako soluzio bat dela iruditzen zait, eta arazoak konpontzen ez dituen gainera.

**“Euskadiren arazo modernoak ez dira konpontzen independentzia bezalako iraganeko proposamenekin”**

## Euskal Herria burujabe izateko baldintzen jabe



JOSE LUIS ELKORO  
HBko Mahai  
Nazioaleko kide ohia

**E**uskal Herria zenbait berezitasun dituen herri bat da. Historian zehar, urte askoan, bere nortasuna erabiltzeko gai izan da. Baina azken 200 urte hauetan Espainiako monarkiak, diktadurak eta errepublikak amorru handiarekin saiatu dira guri nortasuna kentzen gu beraien menden egoteko. Indar horretatik ateratzeko eta herri bezala funtzionatzeko ilusioa beharrezkoa da, hori baita lehenengo baldintza proiektu bat aurrera eramateko.

Hortik abiatuta oso ongi prestatuta gaude euskaldunok gainontzeko baldintzak betetzeko. Esaterako, ekonomian, industrian, nekazaritzan, arrantzan, hezkuntzan, kirolean, osasunean...

Kontrakoez ez dute hori ikusi nahi, benetakoak ez direlako. Horren atzean interesak baino ez daude. Espainia aldeetik gu menpean hartzeko interesa izan dute beti eta zoritxarrez baita lortu ere. Gu mendekotasun horretatik aterako bagina beraien akats handi bat izango litzateke.

Interes horiek politikoak dira hein handi batean. Beraien menpean egon garen bitartean Euskal Herriaren gizarteraren zati batek beti egin du beraien alde, baina jokamolde hori egoista izan da oso. Etxean ditugun etsai batzuk dira: Euskal Herriaren aurka eta gure aurka dagoen Madrilgo Gobernuaren alde egiten dute.

Ekonomikoak ere interes politikoen antzerakoak dira. Enpresa multinazionalak ez dituzte herriaren aldeko estrategiak erabiltzen eta hemendik kanpo hobeto moldatzen direnez, horren aldeko apustua egiten dute herriaz arduratu gabe. Enpresaburuak eta kapitala hemendik kanpo badaude, horiek beste etsai batzuk direla esan genezake.

Ez dut sekula zalantza egin burujabe izanda hobeto biziko ginatkeela esatean. Izan ere, orain beste batzuen eskutik gaude eta horrela ongi ezin gintezke ibili. Baina burua pixka bat ateratzen badugu, alarma soziala sortzen da Espainian. Ibarretxe Plana abisu bat baino ez da izan eta jadanik aztoratu egin dira, ikusten dutelako zer etorri daitekeen horren ostean, eta horrek beldurtu egin ditu.

**“Ibarretxe Plana abisu bat baino ez da izan eta Espainia aldean jadanik aztoratu egin dira”**

## Gora eta Behera

### EMAKUMEEN MUNDU MARTXA



Munduko bazter guztietan 2005eko Emakumeen Mundu Martxa prestatzen ari dira. Gizarte globalizatuaren antolaketa sexistari aurre egingo dio martxa honek, zapalkuntza eta bazterkeria salatuz eta erantzukizunak eta neurri eraginkorrak exijituz. Lan asko dago egiteko.

### EMAKUMEEN AURKAKO BIOLENTZIA



Azaroaren 25ean Genero Biolentziaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatuko da. Datuak hor daude, sufrimenduz blai. Eguneroko erasoek erantzun sendoa eskatzen dute, denon aldetik. Arazoa kolektiboa da, nola onartu emakume bat gehiago, emakumea izateagatik, eraila, bortxatua, baztertua, eraso izatea?



ESTHER LIZARRALDE  
Arrasateko  
Emakume Txokoko  
arduraduna

## Koplak

### Nafarroari koplak

Naturaren oihartzuna ustekabeko erantzuna uholde batek eraman nahi du Nafarren etorkizuna.

Itoitzeko ama lurra lehendik bazen apurra horma garaiek eman diote behin betirako agurra.

Txanponen bi alderdiak aurrez aurre nabariak herritarren gurutzea dakar beste batzuen aurpegiak.

Beste aurpegi gordea ez ezer baino hobea Irunberrira ere iritsi da Itoitzeko uholdea.

Egun baterako zama negar errekek darama euri tantanek eraman dute denbora luzeko lana.

Uholdeen apartean euskara dago tardean mantenduko da hitza bera ere kentzen ez duten artean.

MAIALEN MADARIAGA

### HURRENGO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: [goienkaria@goiena.com](mailto:goienkaria@goiena.com)

*Abizenen idazkera: Euskaltzaindiak dioena zorrotz bete behar da?*

**Goienkaria**  
DEBAGOIENEN ASTEKARIA

ZUZENDARIA  
Eneko Azkarate  
ERREDAKZIO KONTSEILUA  
Edorta Mendieta,  
Miguel Angel Elkorobereibar,  
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa  
SAILETAKO ARDURADUNAK  
Iñaki Iturbe (Diseinua)  
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,  
Natali Martínez, Izaskun Bolnaga,  
Ziortza Martín, Imanol Elortza  
PRODUKZIOA  
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA  
Sergio Azkarate  
HARPIDETZA ETA BANAKETA  
Marta Leturia

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak  
LEHENDAKARIA  
Estepan Plazaola  
ZUZENDARI NAGUSIA  
Iñazio Arregi



# Euskal Selekzioaren alde

Martxel Toledo ESAITeko koordinatzaileak hitzaldia egingo du Eskoriatzan

IRATI AGIRREAZALDEGI

**E**uskal selekzioaren Aldeko Iritzi Taldeak (ESAIT) hitzaldia egingo du datorren azaroaren 6an, egunean, Eskoriatzako gaztetxean. Hain zuzen ere, Euskal Herriko Selekzioaren ofizialtasuna lortzea helburu duen elkarteko koordinatzaile Martxel Toledok jardungo du.

Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldearen helburu nagusia da nazioarteko txapelketetan jarduteko, Euskal Herriko Selekzioaren ofizialtasuna lortzea. Euskal Selekzioaren aldeko iritzia sortzeko eta lantzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu ESAITek: hitzaldiak, Euskal Selekzioaren Egunak, aldarrikapen agerraldiak... Bestalde, Eusko Jaurlaritzarekin, alderdiekin, federazioekin, kirol elkarteekin, kirolariek eta gai horren inguruko talde eta plataformekin ere harremanetan jarri dira.

Eskoriatzako hitzaldia aldarrikapen eta era berean azalpen hitzaldia izango da. Martxel Toledo ESAITeko koordinatzaileak Euskal Selekzioaz egingo du berba. Bide batez, azkenaldian hauts asko harrotu duen gai bat ere ukituko du: Nafarroako Futbol Federazioak Gabonetarako Nafarroako Selekzioa osatu nahi du, eta garai berean Euskal Selekzioak partidua jokatu ohi duenez, jokalaririk zein taldetan jokatuko duten da zalantza. Horrela, bada, Eskoriatzan ere gai horren inguruko eztabaida piztea da asmoa.



ARGAZKIPRESS

Hitzaldiez gain, Euskal Selekzioaren hainbat partidu antolatu ohi ditu ESAITek.

## MANIFESTUA

Asko egin da berba Euskal Selekzioari buruz eta hainbat euskal kirolaririk sinatu dute dagoeneko horren aldeko idatzia.

Manifestu horretan, kirolariek diote nazioarteko txapelketa ofizialetan ezin dutela Ikurriaren koloreekin parte hartu eta derrigortuta daudela Espainiako eta Frantziako estatuak ordezkatzera. Hori dela eta, nazioartean eta txapelketa ofizialetan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen dute.

Helburu hori lortzeko beste hainbat bitarteko beharrezkoak dira, hala nola: Euskal Herriko Federazioak batuko dituen erakunde nazionala sortzea, baita Euskal Komite Olimpikoa ere. Bestalde, euskal lizentzia ofizial egitearekin batera, kirol eta maila guztietan Euskal Herriko liga eta txapelketak antolatu nahi ditu ESAITek.

Bide batez elkarteak euskal gizarteari aldarrikapen horiekin guztiekin bat egiteko dei egin nahi dio.

## INKESTA

Aldarrikapenek eta hitzaldiek aurrera segitzen duten arren, Euskal Herriko kirol federazioek Euskal Selekzioari eta Euskal Federazio Nazionalaren sorrerari buruz duten iritzia jasotzeko inkesta bat egin dute. Guztira 86 jaso dituzte eta gaur bertan eman dituzte aditzera.

Beraz, antolatzaileek Euskal Selekzioaren alde dauden guztiei dei eginen diete eguen arratsaldean hitzaldira joateko eta gaiaz eztabaidatzeko.

## Kirolabur

### ATLETISMOA/DEBAGOIENA

**K**anpazar Kobate Harrobiak Aluminios Francisco Alberdi atletismo taldeko 52 antxintxikalarik Legazpi-Urretxu-Zumarraga herri lasterketan hartu zuten parte joan zen asteburuan. Bertan, Estela Biain korrikalari eta taldeko kide oñatiarra emakumeetan bigarren izan zen. Lasarteko krosean ere emaitza onak lortu zituzten taldeko atletek. Arkaitz Letamendi seniorretan bosgarren izan zen eta Yeray Varela, berriz, lehenengo juniorren sailkapenean.

### ESKUBALOIA/OÑATI

**E**skubaloian maila nazionalen diharduen Aloña Mendi-Arrikruz Kobak taldeak denboraldiko bosgarren norgehiagoka irabazi zuen Leganesen aurka (22-25), joan zen asteburuan. Aurreko bi partidua galduta, garaipen horrek lasaitasun apur bat eman dio taldeari. Golegile nagusiak Aitor Jodar eta Fertxu izan ziren, hurrenez hurren, zazpi eta sei gol sartuta. Oñatiarren hurrengo hitzordua etxean izango da, Logroñoko taldearen aurka, hain zuzen ere.

### ERRUGBIA/ARRASATE

**L**igako lehen partidua atzertu ostean, Arrasateko Errugbi Taldeak zapatuan jokatu zuen aurtengo denboraldiko lehenengo partidua ofiziala. Getxoko hirugarren taldearen aurka erraz irabazi zuten David Jauregiren mutilek. Nahi adina entsegu egin da, azkenean mondragoetarrek 72 puntu lortu zituzten. Bizkaitarrak, berriz, Arrasateren zutoin ingurura hurbildu ere ez ziren egin. Arrasateko jokalariek hurrengo aurkaria Kantabriako Besaya taldea izango da.

### FUTBOLA/DEBAGOIENA

**E**rregional mailako Debagoieneko taldeek zortzigarren jardunaldiko partidua jokatu zituzten joan zen asteburuan eta sailkapen orokorrean izan da aldaketarik. Bergara bigarren postetik hirugarrenera jaitsi da eta Mondra hirugarrenetik laugarrenera. Aloña Mendik eta Aretxabaletak, berriz, lehenengo toki berean jarraitzen dute. Asteburu honetan oñatiarrek eta Aretxabaletakoek etxean jokatuko dute domekan 15:45ean eta 16:30ean, hurrenez hurren, ordiziarren eta debarren aurka. Arrasatearrek Azkoitian dute hitzordua bihar, zapatua, 15:45ean; bergararrek ere bihar jokatuko dute, Lesakan, 17:00etan.



## Behobia Txikia, entrenamendu modukoa

Behobia-Donostia lasterketarako gero eta denbora gutxiago falta denez, entrenamendu modura-edo hainbat bergararrek Behobia Txikia herri proba egin zuten joan zen domekan. Hotzari aurre eginez, Bergara eta Soraluze arteko ibilbidean antxintxika joan eta bueltan herrira itzulita, guztira 15,5 kilometro egin zituzten 50 lagun inguruk. Behin proba eginda, orain, benetako lasterketa geratzen da, Behobia eta Donostia arteko maratoni erdia, azaroaren 9an. / ARGAZKIA: MIGURA

Hemendik aurrera, dena beste kolore batez ikusiko duzu...



Podiuma

# Oihana Uribeetxebarria | KIROL ERIZAINA |

IRATI AGIRREAZALDEGI

**A**rrasateko Athlon kirol medikuntza zentroan dihardu Oihanak erizain lanetan. Maila guztietako kirolariei egiten dizkiete azterketak, baita profesionalei ere. Kirol osasunaz berba egin digu eta kirolean egoki jarduteko hainbat gomendio eman dizkigu.

**Zein zerbitzu ematen duzue?**  
Athlonen helburuak dira kirola praktikatzeko herritarren gaitasuna aztertzea, kirol praktika arrunta nahas dezaketen prozesuak diagnostikatzea eta goi mailako kirolariak eta federatuak aztertzea eta jarraipena egitea. Horretarako osasun azterketak, lesioen tratamendua, laktatoen proba eta errendimendu probak egiten ditugu.

**Zenbaterainoko lotura dago ariketa fisikoaren eta osasunaren artean?**

Oso estua. Kirola ondo egitea osasuntsua da oso, baina gaizki eginez gero, kalterako ere izan liteke. Horregatik kirola egiten hasi aurretik osasun azterketa egitea komeni da, jakiteko kirol sesio bakoitza nola egin. Askotan ohitura txarrak hartzen ditugu: zapatila txarrekin irten, luzatze-arietarik ez egin, norberari ez dagokion kirol batean jardun...

**Zuengana maila guztietako kirolariak etortzen dira?**

Federatuak 12 urtetatik hasien dira, baina badira 65 urterekin kirola egiten jarraitzen dutenak. Batzuek esfortzu probak egiten dituzte, nola dauden jakiteko eta guk aholkuak emateko. Kontraindikaziorik ezean edozeinek egin dezake kirola, betiere kontuan hartuta adin bakoitzak bere mugak dituela eta komeni dela kirolean hasi aurretik azterketa bat egitea, norberaren gaitasunak ikusteko eta dagokion kirola aukeratzeko.

**Profesionalekin ere egiten duzue lan, ezta?**

Gure lankide Alberto Garai ONCE txirrindulari taldeko medikua izan da orain arte eta ekipoko kirolariek osasun azterketak gure egoitzan egin izan dituzte; eta lasterketetan taldekoekin joaten da aholkulari mediko gisa. Orain kolokan dago taldearekin zer gertatuko den, baina Albertok jarraitu egingo duela uste dugu. Bestalde, Trintxerpe taldeko arraunlariekin ere jardun dugu. Kirolari profesionalen jarraipena egitea luxua da guretako.



GOIENKARIA

Oihana Uribeetxebarria Athlon kirol medikuntza zentroan egiten du lan.

**“Kontraindikaziorik ezean, edozeinek egin dezake kirola, betiere kontuan hartuta adin bakoitzak bere mugak dituela”**

**“Gure lankide Alberto Garai ONCEko txirrindularien medikua izan da; bestalde, Trintxerpeko arraunlariekin ere jarduten dugu”**

**Eliteko kirolariei begiratu behar diegu ala eredu apalagoekin nahikoa da?**

Kirola ongi eginez gero baliteke profesionalen mailara gerturatzea, baina horrek ez du esan nahi horiei begiratu behar zaienik. Aproposena kirolari etekina ateratzea da. Profesionalerako bidea luzea da, pixkanaka egin beharrekoa.

**Bada beste batzuek baino lesio gehiago eragiten duen kirolirik?**

Lesioak askotan kirola ongi ez praktikatzegatik sortzen dira. Futboleko eta mendian eginda-koak tratatzen ditugu gehien.

**Behobia-Donostia lasterketa aurki izango da. Zein gomendio emango zenieke korrikalariei?**

Aurreko egunean proteinak eta karbohidratoak hartu behar dira eta atsedean hartu. Egunean bertan, karrera baino bi ordu lehenago gosari sendoa egin eta zapatila berririk ez da erabili behar. Proban ur asko edatea komeni da eta norberari dagokion erritmoan hasi. Lasterketa amaitutakoan ez zaio korrika egiteari berehala utzi behar eta gero, luzatze-arietarik egin eta berriz proteinak eta karbohidratoak jatea gomendatuko nuke.

# Markel Irizar Euskaltel taldeko kide da

Eguenean sinatu zuen kontratua

I.A.

**O**rain arte Orbea-Olarra taldean jardun duen Markel Irizar oñatiarrak atzo, eguena, sinatu zuen Euskaltel taldearekin bi urterako kontratua. Amateur mailatik profesionaletarako jauzia emango du txantxikuarak, eta ilusioz ekingo dio denboraldi berriari.

Martitzenean osasun azterketa egin ostean, atzo, eguena, sinatu zuen Markel Irizarrek beste lau txirrindulariekin batera Euskaltel-Euskadi taldearekin bi urterako kontratua.

Koldo Fernandez de Larrea, Gorka Verdugo, Antton Luengo, Aketza Peña eta Markel Irizar bera amateur mailako txirrindulariak izan dira orain artean, baina profesionalekin batera ekingo diote denboraldi berriari, Euskaltelen kolore laranja soinean dutela.

Derion Euskaltel-Euskadi taldeak duen egoitzan izan zen sinadura ekitaldia eta handik gertu dagoen hotel batean egingo dute Euskaltelekoek lehen kontzentrazioa, abenduan.

**EGUTEGIA, ZEHAZTU GABE**

Kontzentrazioaren ostean, urtarilaren amaieran Euskaltelek talde osoa aurkeztuko du eta ondoren, Mallorkan hasiko dute denboraldia txirrindulariek.

Hala ere, oraindik ez dakite ziur zein lasterketetan parte hartuko duen txirrindulari bakoitzak. Markel Irizarrek zera esan

digunez: “Taldea oraindik guztiz osatu gabe dago, eta baliteke beste fitxaketaren bat egitea. Ondoren, horren arabera zehaztuko dugu taldearen eta norberaren egutegia”.

Oñatiarrari bere helburuen berri galdetuta garbi utzi digu ikastea dela bere nahia. “Mailari neurria hartu behar diot poliki-poliki. Lehenengo urtean taldekide zaharragoei laguntzea izango da nire lana eta, bide batez, baita eurengandik ikastea ere”.

Hasiberria denez, oraingoz ez du apenas aldaketarik igarri. “Txirrindularion neguko lana profesionaletan zein amateurretan bertsua da. Benetan entrenatzen hasten garenean izango dira kontuak. Kilometro gehiago egin beharko ditugu eta bizikleta gainean ordu gehiago egitera ohitu beharko dugu”, esan digu Markel Irizarrek.

**ILUSIOA**

Hitz horrek laburtzen du txirrindulari oñatiarrak Euskaltelekin kontratua sinatzean sentitu duena.

“Hainbeste kostatako ametsa egia bihurtu da azkenean eta orain, gustuko dudana horretan gozatzea eta talde giroaz gozatzea da nire nahia. Horretarako ilusiorik ez zait falta”.

Madariaga zuzendari dutela Markelek eta taldekideek joan den denboraldietako mailari eustea eta lortutako arrakasta muturrera eramatea izango dute helburu, betiere jarraitzaileen animuekin.



ARGAZKI PRESS

Bi urterako kontratua sinatu aurretik azterketa egin zioten Markeli, Derion.



Boulevard-era etorriko zara

Vitoria-Gasteizko  
kalerik  
komertzialena

  
el Boulevard  
de Vitoria-Gasteiz





# IKER

SUKALDE  
ETA BAINU  
ALTZARIAK

#### SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza z/g • Tel.: 943 79 00 43

#### BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde 52 • Tel.: 943 79 99 42

ARRASATE

FAGOR 



ELKARLAGUNTZAKO ELKARTEA

**S**an Felipe Apostol Elkarlaguntzarako Elkartearen 105. urteurrena dela eta, Zuzendaritza batzordeak bazkideei eta herritarrei oro har ondoan aipatzen diren aspektuen berri eman nahi die.

#### 1. ERAKUNDEA.

San Felipe Apostol erakundea IRABAZI ASMO GABEKO elkarte da, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Departamentuan erregistratuta dago, **1898an sortu zen** eta **12.300 bazkide** ditu.

#### 2. ZERBITZUAK

- Estatu barruko lekualdatzea; heriotza gertatu den lekutik egoitza duen lekuraino.
- Hilkutxa.
- Hildakoa jantzi.
- Hainbat gestio: eskelak, mediku-ziurtagiria, epaitegia, eta abar.
- 420 euroko laguntza ekonomikoa, hainbat gastu ordaintzeko.
- 540 euro jasotzeko eskubidea, gure zerbitzua erabiltzeari uko eginez gero.

#### 3. SARRERA KUOTAK.

40 urtera arte doan.  
Adin horretatik gora KONTSULTATU.  
Tel.: 943 79 16 82  
Alberto Ojanguren  
Kontxi Bedia


#### 4. URTEKO KUOTAK

Titularrak 18 €  
Ezkontidea 15 €  
Onuradunak 8 €

Zuzendaritza batzordea



Egubakoitza / 2003ko urriaren 31 / GOIENKARIAren gehigarri berezia



Debagoieneko telebistan  
**DENBORALDI BERRIA**



JATORRIZKO ARGAZKIAK: MARIA JESUS ARGAZKIGINTZA ESTUDIOA

**iKER**

SUKALDE  
ETA BAINU  
ALTZARIAK

**SUKALDE ERAKUSKETA**  
Udala Plaza z/g • Tel.: 943 79 00 43

**BAINU ERAKUSKETA**  
Zarugalde 52 • Tel.: 943 79 99 42

**ARRASATE**

**FAGOR** 





■ GOITB-KO PROGRAMAZIOARI GAINBEGIRATUA

# Berritasun ugari GOITBko programazio berrian

USOA AGIRRE

**G**oiena Telebista berritasun ugariarekin dator aurten. *Txintxaun* haurrendako lehiaketa, *Mandio* eta *Iragana Gogoratuz* dira aurtengo ikasurterako saio berriak; baina horiez gain, gainerako saioek ere badakartzate berritasunak.

*Txintxaun* haurrendako lehiaketa Mikel Aranburuk aurkeztuko du eta ibarreko neska-mutikoek, ondo pasatzeaz gain, sari bikainak irabazteko aukera izango dute. Lehiaketako sari mardulena Port Adventurarako bidaia izango da; urtarrileko *superfinal*eko irabazleek eramango dute sari hori. Hilero hiru talde izango dira lehiari, eta hilabete bakoitzeko talde onenek *superfinala* jokatu dute urtarrilean. Lehiaketaz gain, atal mordoa izango ditu: magoak, ipuin kontalariak, albaitariak eta marrazkilariak izango dira saioan, astero atal ezberdin batekin. Horretaz guztiaz aparte, aurkezle gazte berriak trebatzeko saioa ere izango da; astero gaztetxo batek aurkeztuko du lehiaketa. Zapatuetan grabatuko dute lehiaketa GOITBko plato nagusian eta eguaztenetan emitituko dute, 20:30ean.

Bestalde, erreportaje edo dokumental erako bi saio estreinatuko dituzte: *Mandio* eta *Iragana Gogoratuz*. GOITBko ardu-



XABIER URZELAI

Aldiko behin, hainbat gairen gaineko mahainguruak ere egingo dituzte Goiena Telebistan.

radunen esanetan, "bi saio horiek kalitate handikoak izango dira". Aspaldiko eta gaur egungo irudiekin eta adierazpenekin osatutako erreportajeak izango dira. *Mandio*-ren lehen dokumentala Espainiako gerraren gainekoa izan zen, eta GOITBkoen arabera, "arrakasta handia izan zuen. Hurrengo erreportajeak ere arrakastatsuak izatea espero dugu". Hamabostean behin, eguaztenetan emango dute *Mandio* saioa abendura bitartean. Urtarriletik

aurrera, berriz, *Iragana gogoratuz* saioak hartuko du *Mandio*-ren tokia. *Iragana gogoratuz* saioan XVI. mendean Debagoienak izan zuen industria garapenaren gainekoak izango dira erreportaje gehienak. Fagorren eta Goienaren arteko hitzarmen bati esker egingo dira erreportaje horiek.

#### KIROL ESKAINTZA BIKAINA

*Harmailatik tertulia*-n ere izango dira berritasunak. Aurten, lehenengo aldiz, Realak, Athleticek

eta Osasunak jokatu dituzten partiduen irudiak izango dituzte, ETBri esker lortuta, eta tertuliako solaskideek lehen mailako ligako golak izango dituzte komentatzeko. Aurten ere Julen Iriondok aurkeztuko du astelehenetako *Harmailatik* eta ondorengo tertulia, hainbat debagoiendarren iritziekin batera.

Zera diote GOITBko ardura-dunek: "Aurten Debagoieneko preferente mailako futbol taldeei jarraipen berezia egingo diegu.

Sasi-zuzeneko emanaldiak egingo ditugu gure ibarreko taldeek euren artean jokatzeko dutenean". Debagoieneko bi talderen arteko derbiren bat dagoenean, beraz, partidua etxean bertan ikusteko aukera izango da, ia zuzenean. Derbi horiek domekutan emitituko dituzte, futbol partidua grabatu eta berehala.

Kirolekin segituz, Realari jarraipen berezia egingo diote Txapelaren Ligan. Saio bereziak ere egingo dituzte; Behobia-

**Aurkezle gazte berriak trebatzeko saioa ere izango da 'Txintxaun' lehiaketa**

**Erreportaje edo dokumental erako bi saio izango dira: 'Mandio' eta 'Iragana gogoratuz'**

**Aurrenekoz, lehen mailako futbol taldeen irudiak 'Harmailatik' saioan**



## TORREKUA



### ERRETEGIA

*Gustu finendako leku fina.*

- Batik bat arraina
- Karta
- Eguneko menua
- Goizeko 7etatik zabalik

Ibargarai 37, BERGARA. Tel. 943 76 50 99



Donostia lasterketaren gainekoa, esaterako. Uztailari begira, berriz, joan den ikasturteko saioak izan zuen arrakasta ikusita, Tourraren gaineko saio berezia egiten ahaleginduko dira. Bestelako saio bereziak ere egingo dituzte: ekaina iristen denean, herriz herri ibiliko dira herriko jaietan. Hain zuzen ere, Bergaran hasi eta Oñatiko jaiekin amaituko dute.

#### ALBISTEGIETAN BERRITASUNAK

Albistegiek beti izan dute garrantzi handia Goiena Telebistan. Egurdiko albistegia Gorka Etxabek aurkeztuko du eta gauekoan aurpegi berria izango dugu: Deiane Arrieta. Bi albistegiak zuzenezuzenean izango dira. GOITBko arduradunen esanetan: "Enpresa arloari tarte berezia eskainiko diogu albistegietan. Hain zuzen ere, horixe izango da albistegietan egingo dugun berritasunetako bat: *Gure enpresa tarte*". Horrez gain, albistegiek kareta eta sintonia berriak izango dituzte.

*Astebete* saioak ere izango ditu berritasunak. Iragarpen meteorologikoa eta GOIENKARIAK egiten duen *Gora eta behera* atalaren modukoa izango dira berriak. Azken atal horretan, astero protagonista batek emango du iritzia. Asteko albiste garrantzitsuenen gainbegiratu egiteaz gainera,

**'Astebete' saioan eguraldiaren iragarpena izango da berritasunetako bat**

**'Goienan, herriz herri' saioan auzoek garrantzi handia izango dute aurten**

**Iazko arrakastari eutsi nahian, aurten ere 'Iluntzean' saioa izango da ikusgai**

asteko protagonistari elkarriketa egingo dio Goiatz Arana kazetariak.

Mikrosaio berriak ere izango dira; sendabelarretan aditu Alberto Altubek aurkeztuko du mikrosaio horietako bat eta



Olatz Pagaldaik martitzenetan aurkeztzen du *Soinuz blai* saioa.

GOIENKARIA

Miren Alberdi dietistak beste bat. Mikrosaio horietan aholku ugari emango dizkigute biek hala biek.

Bestalde, *Goienan, herriz herri* saioan auzoek garrantzi handia izango dute; auzo alka-

teekin berba egingo du Alberto Gorritibereak; auzoetako beharren berri emango du. Bestalde, azken hilabeteen herri horretan izandako albiste esanguratsuenekin albiste errota egingo dute.

Azkenik, iazko arrakastari eutsi nahian, aurten ere *Iluntzean* saioa izango da GOITBko programazioan. Aintzane Gardokik Euskal Herriko hainbat pertsona ezagun elkarriketatuko ditu.



MARIA JESUS ARGAZKIGINTZA ESTUDIOA

Julen Iriondo oñatiarra arduratuko da aurten ere kirolaz.

#### KIROLA BIZI-BIZIAN

Ikasturte honetan ere kirolek garrantzi handia izango dute Goiena Telebistan. Aurreko urteotan ez bezala, aurten preferente mailan dauden Debagoieneko futbol taldeen arteko derbiak oso-osorik ikusi ahal izango ditugu etxean bertan. Ez dira zuzeneko saioak izango, baina partidua amaitu eta berehala izango dugu derbiaz gozatzeko aukera Goiena Telebistan.

*Harmailatik tertulia*-n ere izango dira berritasunak. Aurten, lehenengo aldiz, lehen mailako euskal futbol taldeen partiduetako irudiak izango dituzte, eta tertuliakideek lehen mailako taldeen golak eta jokaldiak komentatzeko aukera izango dute. Euskal Telebistak emango dizkio irudi horiek GOITBri. Eta kirol saio bereziak ere izango dira. Realari jarraipen berezia egingo diote Txapeldunen Ligan, eta, urtero moduan, Behobia-Donostia lasterketan ere izango dira. Era berean, uztailari begira, Frantziako Tourraren gaineko saio berezia egiten ahaleginduko dira.

#### AURREKO IKASTURTEKO SAIOAK

Berritasun horiekin guztiekin batera, joan den ikasturteko hainbat saioak ere jarraituko dute oraingo ikasturtean, berritasun nabaririk gabe. Martitzenetan eta egubakoitzetan *Soinuz blai* musika tarteak izango dira gaueko 21:15ean; martitzenetako saioa Olatz Pagaldaik aurkeztuko du eta egubakoitzetan, berriz, Maite Albes eta Ugutz Usandizaga arituko dira aurkezle lanetan.

Horrez gain, *Gatza eta berakatz*a sukaldaritzako saioak ere jarraituko du aurten ikasturtean. Aurrekoetan bezala, aurten ere Debagoieneko hainbat sukaldaririk prestatutako jakiak eta haien sekretuak ezagutzeko aukera izango dugu egurdiko 13:30ean eta iluntzeko 19:45ean.

*Sarrera doan* saioa ere izango dugu aurten ikasturteko programazioan. Amagoia Lasagabaster kazetaria arituko da aurten ere aurkezle lanetan eta inguruko herrietan izango ditugun kultura ekitaldien gaineko informazio zabala eskainiko digu.



**BILTOKI**  
BILTOKI ASPIZA S.L.

Elektrikako tresnak      Barrenkalea 6      Tel.: 943 76 25 96

Opariak      Barrenkalea 12      Tel.: 943 76 04 72

Dekorazioa      San Martin plaza      Tel.: 943 76 43 51

Sukaldeak eta bainuak      San Pedro plaza      Tel.: 943 76 34 00



## ■ GOITB-KO PROGRAMAZIO BERRIA

# Programazio onena eta gertu

**BERRIAK**Astelehenetik  
egubakoitzera. 14:30 eta 20:00

Ibarrean gertatzen denaren berri jasoko dugu egunero zuzeneko albistegietan. Gorka Etxabek aurkeztuko du eguerdietako albistegia eta iluntzetan aurpegi berria izango dugu ibarreko berri ematen: Deiane Arrieta.

AURKEZLEAK: Gorka Etxabe eta Deiane Arrieta / GAIA: albisteak / IRAUPENA: 30 minutu

**GAURKOAK**Astelehenetik  
egubakoitzera. 23:00

Ibarreko ordezkariak Milanon

Egun osoko albisten laburpena izango da gaueko 23:00etan. Debagoienean jazo diren gertaera garrantzitsuenen berri izango dugu ordu horretan. Egunari agur esateko modu bikaina: eguneko gertaera nagusiei gainbegiratua.

AURKEZLEAK: aurkezlerik ez / GAIA: albisteak / IRAUPENA: 15 minutu

**ASTEBETE**

Egubakoitzetan. 20:30

Asteko albiste garrantzitsuenei gainbegiratua egingo die Goiatz Aranak eta asteko protagonistari elkarriketa egingo dio. Berritasunak dakartza aurtengo ikasturtean: iragarpen meteorologikoa eta GOIENKARIAK egiten duen *Gora eta behera* atala.

AURKEZLEA: Goiatz Arana / GAIA: asteo albisteak / IRAUPENA: 30 minutu

**GOIENAN,  
HERRIZ HERRI**

Martitzenetan. 20:30

Berritasun ugarirekin dator aurten *Goienan, herriz herri* saioa, lehen *Herrilan* zena. Auzoek garrantzi handia izango dute saio berrian. Auzoetako alkateekin berba egingo dute eta auzoon beharren berri emango dute.

AURKEZLEA: Alberto Gorritiberea / GAIA: alkateekin solasean / IRAUPENA: 30 minutu

**MANDIO**

Martitzenetan. 20:30

Aspaldiko eta gaur egungo irudiekin eta adierazpenekin osatutako erreportajeak. Lehenengo saioak, Espainiako gerraren gainekoak, arrakasta handia izan zuen. Hamabostean behin emango dituzte erreportajeak, urritik abendura.

AURKEZLEA: Goiatz Arana / GAIA: erreportajeak / IRAUPENA: 30 minutu

**IRAGANA  
GOGORATUZ**

Martitzenetan. 20:30

Garai bateko lanbideei buruzko erreportajeak bilduko ditu. XVI. mendean Debagoienak izan zuen industria garapenaren adierazgarri diren gaiak izango dira hizpide. Urtarriletik aurrera *Mandio*-ren lekua hartuko du.

AURKEZLEA: Maria Agirre / GAIA: erreportajeak / IRAUPENA: 30 minutu

**SOINUZ BLAI**Martitzenetan eta  
egubakoitzetan. 21:15

Martitzenetan Olatz Pagaldai aurkeztuko du *Soinuz blai* musika saioa eta egubakoitzetan Maite Albes eta Ugutz Usandizaga arduratuko dira musikan berriena eskaintzeaz. Bertako eta kanpoko musikarien bideoklipak.

AURKEZLEA: Olatz Pagaldai, Maite Albes eta Ugutz Usandizaga / GAIA: musika / IRAUPENA: 15 minutu

**TXINTXAUN**


Eguaztenetan. 20:30

Mikel Aranburu oñatiarrak aurkeztutako saioa. 7 eta 11 urte arteko umeendako lehiaketa. Aurkezle gazte berriak trebatuko ditu Mikelek eta atal mordoa izango ditu: magoak, ipuin kontalariak, albatariak...

AURKEZLEA: Mikel Aranburu / GAIA: lehiaketa / IRAUPENA: 30 minutu



# koena GOITBn



## HARMAILATIK

Astelehenetan. 22:30

Astelehenero bezala, asteburuan izandako kirol ekitaldien berri emango digu Julen Iriondo kazetariak. Ibarreko futbol taldeen partiduak, pilota partiduak eta aste bukaran izandako beste hainbat kirol ekitaldiren gaineko erreportajeak.

AURKEZLEA: Julen Iriondo / GAIA: kirolak / IRAUPENA: 30 minutu




## HARMAILATIK TERTULIA

Astelehenetan. 23:15

Lehen aldiz, Realak, Athleticen eta Osasunak jokatuak irudiak izango dira. Tertuliako solaskideek lehen mailako ligako golak eta jokaldiak komentatzeko aukera izango dute.

AURKEZLEA: Julen Iriondo / GAIA: kirolak / IRAUPENA: 30 minutu



## LANABESAK

Eguaztenetan. 21:15

Hainbat enpresaren gaineko erreportajeak bilduko ditu *Lanabesak* saioak. Hamabostean behin emitituko dute saioa, eguaztenetan, *Goienan*, *herriz herri* saioarekin tartekatuta.

AURKEZLEA: Nerea Makazaga eta Txomin Galdos / GAIA: ibarreko enpresak / IRAUPENA: 30 minutu



## MIKROSAIOAK

Astelehenetik egubakoitzera. 21:45

Sendabelarretan aditu Alberto Altube gatzagarrak aurkeztuko du mikrosaio horietako bat eta Miren Alberdi nutrizionistak beste bat. Hamabost minutuko iraupena duten aholku saio txikiak izango dira.

AURKEZLEAK: Alberto Altube eta Miren Alberdi / GAIA: osasuna / IRAUPENA: 15 minutu



## ILUNTZEAN

Eguenetan. 21:15

Iazko arrakastari eutsi nahian, Aintzane Gardoki kazetariak Euskal Herriko hainbat pertsona ezagun elkarrizketatuko ditu. Ordu erdiko elkarrizketak izango dira, eta kultura, politika edo beste arlo batengatik ezagun den jendea ekarriko du.

AURKEZLEA: Aintzane Gardoki / GAIA: elkarrizketak / IRAUPENA: 30 minutu



## SARRERA DOAN

Eguenetan. 20:30

Azken urteotan bezala, Amagoia Lasagabaster kazetariak kultura proposamenak egingo ditu asteburuari begira. Ibarrean eta inguruko herrietan izango diren ekitaldien berri emango du.

AURKEZLEA: Amagoia Lasagabaster / GAIA: kultura, aisialdia eta asteburuko hitzorduak / IRAUPENA: 30 minutu



## GATZA ETA BERAKATZA

Astelehenetik egubakoitzera. 19:45

Geure sukaldariak euren errezetak azaltzen dizkigute egunero *Gatza eta berakatza* saioan. Telebista platoa sukalde eder eta moderno bihurtu dugu, geure inguruko jate-txe ezagunen plater bikainak erakusteko. Entretenezko saio egokia.

AURKEZLEAK: Debagoieneko eta inguruko sukaldariak / GAIA: errezetak / IRAUPENA: 15 minutu



## JAIK ETA BEREZIAK

Aurten ere saio bereziek tarte handia izango dute Goiena Telebistan. Realari jarraitzen berezia egingo diote Txapeldunen Ligan eta, uztailari begira, Tourraren gaineko saio berezia izango da. Jaietan murgilduta ere ibiliko dira.

AURKEZLEAK: Kepa Errasti, Oihan Vega... / GAIA: bereziak / IRAUPENA: aldakorra



■ 'MANDIO' ETA 'IRAGANA GOGORATUZ'

# Lehenengo gertaerak hizpide

USOA AGIRRE

**M**andio da Goiena telebistak aurten-go ikasturterako prestatu duen saio berrietako bat. 30 minutuko erreportajeak bilduko ditu saioak eta hamabostean behin emitituko dute. Historiako hainbat gertaera aztertuko dituzte.

Urriaren lehen eman zuten lehenengo erreportajea, Espainiako gerraren gainekoa. Hurrengo erreportajeetan, 1977ko Ikurrinaren legalizazioa izango dute mintzagai. Gertaera hura bizi izan zuten protagonisten testigantzak jasoko ditu erreportajeak, eta, horrez gainera, garai bateko bideo irudiak eta argazkiak tartekatuko dituzte.

Guztira bost erreportaje emango dituzte eta, betiere, ibarrek lotutako gaiak izango dira. Hirugarren erreportajea, esaterako, antzinako Arrasateko San Juan jaiei buruzkoa izango da, eta ondorengoak zehazteke baldin badaude ere, garai bateko irakaskuntzaren eta kirolen gainekoak izan daitezke.

## DOKUMENTAZIO LAN HANDIA

Goiatz Arana kazetaria aritu da gaiak aukeratu eta informazioa biltzen, eta Goiatzek berak egin ditu erreportajeetako gidoiak. Monika Montero arduratu da arlo teknikoaz.

Erreportajeetan garai bateko bideo irudiak eta argazkiak tartekatzen dira, eta lan handia egin dute irudi horiek guztiak lorzen. Bideo irudi gehienak Gerardo Elortzak eta Pedro Sologaiztoak utzi dizkiete, eta partikular askoren atea jo dute argazki bila.



Maria Agirre eta Goiatz Arana kazetariak arduratu dira *Mandio* eta *Iragana gogoratzuz* saioez.

MARIA JESUS ARGAZKIGINTZA ESTUDIOA

Debagoieneko historia osatzen duten gertaerak mintzagai 'Mandio'-n

Erreportajeetan garai bateko bideo irudiak eta argazkiak tartekatuko dituzte

Urtarriletik aurrera 'Mandio'-ren lekua hartuko du 'Iragana gogoratzuz' erreportaje saioak

## LEHENGO KONTUAK GOGORATUZ

**U**rtarriletik aurrera *Mandio*-ren lekua hartuko du *Iragana gogoratzuz* saioak. Fagorren eta Goienaren arteko hitzarmenari esker datorkigu *Iragana gogoratzuz* saioa eta garai bateko lanbideei buruzko erreportajeak bilduko ditu. XVI. mendean Debagoienean nagusi izan ziren industriak izango dira saioaren ardatz, garai hartan Debagoienak izan zuen industria garapeneren lekuko.

Debagoieneko armagintza, baserriak eta jauntxoak, Oñatiko txokolate industria eta lanbide zaharrak izango dira lehenengo erreportajeetako gaiak. Hogeita hamar minutuko hamabi erreportaje izango dira eta Jose Antonio Azpiazuk eta Maria Agirrek egingo dituzte gidoiak. Argazki zaharrak eta gaur egungo bideo irudiak tartekatuko dituzte erreportajeetan, eta jendearen testigantzak ere izango dira. Urtarriletik aurrera ikusi ahal izango ditugu garai bateko industriaren gaineko erreportajeak, eguaztenetan, iluntzeko 20:30ean.



Oñatiko txokolate industriari ere eskainiko zaio tarterik *Iragana gogoratzuz* saioan.

ANTON INZA



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



■ 'TXINTXAUN' HAURRENDAKO SAIOA

# Sari bikainak 'Txintxaun'-en

USOA AGIRRE

**T**xintxaun saioa da GOITBk ikasturte honetarako dakarren berrikuntzetako bat. Lehiaketa moduko saioa da, eta ibarreko neska-mutilek sari bikainak irabazteko aukera dute. Mikel Aranburu oñatiarrak aurkezten du saioa.

Hilean hiru taldek parte hartzen dute Txintxaun haurrendako lehiaketan. Hilabeteko lehenengo hiru asteetan ligaxka moduko bat egingo dute hiru talderen artean, eta ligaxkako bi talde onenek finala egingo dute hileko laugarren astean. Final horretako irabazleek Erein argitaletzeko liburu sorta bat eta Ipurbeltz aldizkarirako harpidetza irabaziko dute, baina finalera iristen ez direnak ez dira esku-hutsik geratuko; parte-hartzaile bakoitzak Donostiako Aquariumerako bi sarrera eta Gorbeia Yelmo Cineplex zinemarako bi sarrera eramango ditu etxera.

Baina sari handiagoa irabazteko aukera ere badute parte-hartzaileek. Urriko, azaroko eta abenduko finalerako irabazleek beste ligaxka bat izango dute urtarriean, eta hilabete horretako azken lehiaketa irabazten duen taldeak Port Aventura joateko aukera izango du. Izan ere, Eroski

Bidaiek hiru haur eta sei heldu-erentzako bidaia emango die *superfinalaren* irabazleei.

## AURKEZLE IZATEKO AUKERA

Aurkezle gisa trebatu nahi duten gaztetxoek ere izango dute lekua Txintxaun lehiaketan. Izan ere, astero gaztetxo batek aurkeztuko du saioa.

Ordu erdiko lehiaketa da Txintxaun, eta bi atal nagusik osatzen dute: lehenengoa galdera-erantzunen atala da; bigarrena, berriz, dinamikoagoa da eta era guztietako jolasak egiten dituzte neska-mutikoez. Hala ere, lehiaketaz gainera beste atal batzuk ere baditu Txintxaun saioak. Bi atal nagusien artean bost minutuko mikrotxoko bat dago, eta bertan Miren Larrea ipuin kontalariak, Alain Urrutia magoak, Miren Lide Zumalde albaitariak eta Ibai Garai marrazkilariak hartzen dute parte.

Lehenengo programetarako taldeak Jardun eta Txatxilipurdiren bidez osatu dituzte, baina parte hartu nahi duen edozeinek eman dezake izena GOITBko telefono zenbakira (943 71 23 93) deituta. Hortaz, 7 eta 11 urte artean baduzue, hiru laguneko taldea osatu dezakezue eta sari bikainak eskuratzeko aukera duzue Txintxaun lehiaketan. Animatu, merezi du-eta.

Esan behar da, dekoratua berri-berria dela, Nagore Ferreirok espresuki saiorako egina.




Ibarreko neska mutikoez dira Txintxaun lehiaketako protagonista nagusiak. Eguaztenero GOITBn ikus daiteke saioa.

GOIENKARIA

**'Superfinaleko' irabazleek Port Aventura bidaia eskuratu dute**

**Aurkezle izan nahi duten neska-mutikoez badute lekua 'Txintxaun' lehiaketan**



MARIA JESUS ARGAZKIGINTZA ESTUDIOA


Oso gustura dabil Mikel telebistan.

## OÑATI IRRATIAN ETA 'XELEBERRI'-N

**H**ogeita hiru urteko oñatiar hau da Txintxaun lehiaketako aurkezlea. Enpresaren Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziaduna da eta Enpresen Zuzendaritzan masterra amaitu berri du. Enpresaren inguruko ikasketak egin dituen arren, beti gustatu izan zaizkio Mikeli komunikabideak, eta orain dela zazpi bat urtetik hona, kazetari eta aurkezle lanetan dihardu.

Orain dela zazpi bat urte hasi zen Oñati Irratian saio bat egiten, eta telebista betidanik gustatu izan zaionez, curriculum bidali zuen Goiena Telebistara. Handik deitu eta kolaboratzaile gisa egin ditu hiru urte Xeleberrin, jaietako saioetan eta beste hainbat saio berezitan. Iaz kazetari lanetan ibili zen aste bukaeretan; kirolean lehenengo eta albiste orokorretan gero.

Arrasate Irratian ere egin du lan eta aurtengo ikasturterako iluntzeko magazin bat du esku artean.



*Aukera ezazu leku atsegina*

**BASTER-ALDE** Jatetxea - Galartza auzoa • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 24 58



■ ZELAN IKUSI GOITB?

# Konpontzeko bidean dira GOITB ikusteko arazoak

USOA AGIRRE

**O**raindik ere herri guztietara iristeko arazoak ditu GOITBk: Antzuolan, baimen arazoak direla-eta, ezin dute ikusi; eta Euskaltelen kable bidezko telebista kontratatu dutenak ere kezu dira, Goiena Telebista ezin dutelako kable bidez ikusi.

Gaur egun ibarreko herri guztietara iristen da Goiena Telebista, Antzuolara izan ezik. GOITB sortu zenetik ari dira Antzuolako Udala eta Goiena irtenbideren baten bila, baina hainbat arazo direla-eta, oraindik Antzuolara iritsi ezinda dabil ibarreko telebista. Dirudienez, antena kokatuta dagoen lursailarekin baimen arazoren bat du Antzuolako Udalak.

Aurreko agintaldian ahalegin handia egin zuen Antzuolako Udalak ibarreko telebista herrian ikus zedin, eta oraingo agintaldian ere gogo handiz hartu dute Udaleko agintariak eta Goienak GOITBren kontua. Alkatea bera ari da gai horri irtenbide egokia topatu nahian.

**KABLETIK EZIN IKUSI GOITB**

Urte hasieran hasi zen Euskaltel enpresa Debagoienera zuntz optikoa sartzen. Telefonía, abiadura handiko Internet eta kable bidezko telebista eskaintzen ditu Euskaltelen zuntz optikoak, baina badu desabantaila bat ere: ezin da oraindik GOITB ikusi. Euskaltelak eskaintzen duen kable bidezko telebistan antena bidez jasotzen ditugun kateak (ETB, TVE, A3, T5 eta C+), gaztelaniatzko tokiko telebista batzuk eta beste hainbat kanal tematiko ikus daitezke, baina ibarreko telebistarik ez, oraindik. Telebista kable bidez



Goiena Telebistako seinalea norberaren herrira heltzen baldin bada, eta behin antena arazoak konponduta, oso erraza da gure telebistan GOITB sintonizatzea.

GOIENKARIA

**Antzuolan ezin dute oraindik Goiena Telebista ikusi, baimen arazoak direla-eta**

hartuz gero, uhinez jasotzen ditugun kateak ezin dira ikusi, GOITB ikusteko, kablea kendu eta antena konektatu beharra dago.

Hori dela eta, duela urtebete Goiena Euskaltekin harreman-

**Euskaltelen kable zerbitzua kontratatu dutenak kezu dira GOITB ezin dutelako ikusi**

netan jarri zen, kable bidez ere GOITB ikus zedin. Ibarreko telebista kable bidez ikusi ahal izateko arazo tekniko batzuk konpondu behar izan zituen Euskaltelak, eta urrian guztia abian

**Ondo bidean, datorren urtearen hasieran ikusi ahal izango da kable bidez GOITB**

egongo zela uste bazen ere, datorren urte hasierara arte ez dugu GOITB kable bidez ikusiko.

Horrek kezka eta ondoeza eragin ditu eskualdeko hainbat udal-letan eta Euskalteko eskaintzaz

baliatzea erabaki duten hainbat debagoiendarrengan. Ez da erraz ulertzen bertako telebista ikusteko aukera kendu eta hiriburu-ruetakoak sartzea aurrez bezeroa jakinean jarri barik, eta hori, euskarari egiten zaion eraso zuzena kontuan hartu barik. Jakin dugunez, Oñatiko Udala Euskalteli zuzendu zaio GOITB zuntz optikoz lehenbailehen sar dezan eskatuz. Beste udal batzuetan ere antzeman dugu era horretako irizirik eta batzuek ez dute baztertzen Oñatikoak hartutako erabakiaren erakoak bultzatzea.

**ZELAN IKUSI GOITB?**

**E**txe batzuetan ez da GOITB ikusten, sintonizazio arazoak tarteko. Beste era batera esanda, airean diren uhinak telebistaz hartzeko eman beharreko urratsak ez dituztelako eman. Zer egin? Antena normala dagoen etxeetan, telebistaren eskuliburua irakurri eta horren arabera sintonizatu behar da GOITB.

Antena kolektiboa duten etxeetan, ordea, telebista kate bakoitza hartzeko aplikadore bat behar da, eta ibarreko telebista ikusteko ere beste bat behar da, bizilagun guztien adostasunarekin. Guztien adostasuna lortuta, antena-teknikari batekin harremanetan jartzea ezinbestekoa da.

**GOIENAKO PUBLIZITATE SAILA**

**G**oiena Komunikazio Zerbitzuak hainbat arlotan egiten du lan: prentsan, irratian, Interneten eta telebistan. Hedabide horien guztien publizitatea kudeatzeko, sei lagunek dihardute lanean Goienako publizitate saillean.

GOITBri dagokionez, begi-bistan dago ikus-entzunezko medioa izanik aukera ezin hobea eskaintzen duela edozein motatako publizitatea egiteko. Izan ere, telebistak dinamismoa eta soinua batzen ditu. Hala, Goiena Komunikazio Zerbitzuetako publizitate sailak GOITB ezagutzeko gonbita egin nahi die Debagoieneko enpresa eta saltegi guztiei, inolako konpromiso barik.



GOIENKARIA

Iragarkiak jartzeko oso euskarri egokia da GOITB.

**IRAGARKIENDAKO AUKERA ASKO**

**G**oiena Telebistak gaur egun duen programazio zabalari esker, bezeroari interesa duen arloan babesteak (enpresa, kirola, eguraldia...) egiteko aukera ematen diote Goienako publizitate saillean. Horrez gainera, beste herri telebista euskaldun batzuetan iragartzeko aukera ematen dute publizitate saillean: Goierri Telebistan, Urdaibai Telebistan, Ttipi-Ttapan, Zarautz Telebistan eta Xaloa Telebistan.

Esan beharra dago azken urteotan GOITBk ikusle kopuruan gora egin duela, beste herri telebista batzuekin gertatu den moduan. Eta horri seinale hedapenak (kable bidezko telebistak) ere lagunduko dio.



# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko urriaren 31

Kultura  
eta  
aisialdia



Urriaren 31tik  
azaroaren 7ra

## Heriotza, berbera. Erritoak, hainbat

Beste hainbat tradizio bezala, hiletaren inguruko erritoak ere aldatu egin dira Debagoiengan, Erdi Arotik gaur egunera

**D**omu Santu eguna, hil direnak modu berezian gogoratzeko eguna, bihar da, azaroak 1. Debagoiengo familia gehienek kanposantura joko dute, eta euren senitartekoen hilobiak lorez, kandelaz... apainduko dituzte. Hori betiko ohitura iruditzen zaigu orain, baina harritzekoa da gauzak zenbat aldatu diren heriotzaren inguruko erritualei dagokien ere. Adibidez, bazenekiten, lehen, bazkari handi bat zela hileta ohitura nagusia? Eta ahariak, behiak... eskaintzen zituztela hildakoen arimaren alde?

**H**eriotzak pizten dituen egonezina, gogoeta, samina... modu askotara adierazi izan dira mendeetan barrena. Debagoiengo ohiturak asko aldatu dira urteak joan ahala. Beharbada, aldaketa horiei begirada bat emanaz gero, giza mentalitatearen gaineko hainbat alderdi deskubri ditzakegu. Edo, besterik ez bada, bitxikeriaz betetako historia baten berri jaso.

“Heriotzari emandako erantzun soziala desberdina izan da, eta hainbat bolada edo garai bereiz daitezke, eran-

tzunaren arabera”, diosku Juan Mada-riaga Historia Garaikideko irakasle oñatiarrak. Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle horrek tesi bat idatzi zuen gai horren inguruan, eta Oñatiko hileta erritualak, jarrerak, mentalitatea... aztertu zituen 1700-1850 urte bitartean. Bere konklusioak, hala ere, Debagoien osora zabal daitezke.

### “BIZITZA BERREZARRI”

“Gaur egun ospitalean, eta sozialki, oso esparru txikian bizi izaten da pertsona

baten heriotza; lehen, ordea, oso dimentsio sozial zabala zuen heriotzak, eta herri oso batek parte hartzen zuen hileta erritualotan”, dio Madariagak.

Badirudi gaur oso modu azkar eta diskretuan egiten direla egin beharrekoak. Egoera guztiz aurkakoa zen XIX. mendera arte: orduan, ekintza nagusia izaten zen hildakoaren familiak antolatutako bazkari handi bat. “Bizitza berrezartzeko modu bat zen”, diosku irakasleak. /15  
LEIRE KORTABARRIA





ESTETIKA-ZENTRUA

LIRAIN


Bixente Ferrer, 1 - ARRASATE  
Tel./Faxa: 943 79 52 17

TEKNOLOGIA AURRERATUENA ESTETIKAN



Lzar-tratamendu honek masaje modalitate guztiak batzen ditu: zelulitisa gutxitu, linfotikoa, zirkulazioa, lasaitzailea, tinkotzailea eta lipodistrofikoak. Keymodule taldeak LPG azken sorkuntza aurkezten dizu. Hanketako, bizkarreko, abdomeneko eta gluteoetako gantzak kanporatzen ditu arrabol informatizatuei esker. Laranja azala txikitzen du eta elastikotasuna, tonizitatea eta leuntasuna berreskuratzen ditu. Gainera, odol-zirkulazioa eta linfotikoa aktibatzen ditu, baita likido euspeneko problemak eta ertzaldeko zirkulazio txarra konpondu ere..

\*Ez onartu biguntasuna sor dezakeen imitaziorik %10eko deskontua gorputz tratamenduetan



kutxaZabal Deba

Trebakuntza-Ekimenak

Tokia, Informazioa eta Izen-ematea



UNED-BERGARA:

ADINEKO PERTSONEKIN ESKUHARTZE TAILERRAK

S. Martín Agirre Plaza, 4  
20570 Bergara (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 76 90 33 Fax-a: 943 76 27 21

E-mail: info@bergara.uned.es

## ARTA ETA ESKUHARTZE ESKOLA ADINEKO PERTSONEKIN

### kutxaZabal Deba

Menpeko Nortasuna duten pertsonak zaintzen dituzten kolektiboaren zerbitzuan **kutxaren** Gizarte-Ekintzak, **UNED-Bergara**rekin batera jarri duen baliabide berria da kutxaZabal Deba, eta Laguntza Sozialaren alorrean Prestakuntza eskaintzea du helburu.

Zerbitzu profesionalak eskaintzeko jakin-beharreko teknikak eta ezaupideak eskuratu nahi dituztenei ez ezik, artatze-teknika berriak ikasi edota euren burua birziklatu nahi duten osasun eta gizarte alorretako profesionaleri ere zuzenduta dago. Zaintzen duten pertsonari behar den bezala laguntzeko, gutxieneko ezagutza-maila eskuratu nahi duten pertsona horien senideei ere baliagarria da.

Horrez gain, dibulgazio eta zabalpen-jarduerak sustatzeko asmoa ere badu, ondoko gaietaz buruz: ezintasunak dituzten pertsonen arazoei buruz, gizartearen bazterketa jasaten dutenei buruz, gizarteratze-premia daukatenei buruz, boluntariadoaren garapenari buruz, eta abarrei buruz.

Ikastaroak, tailerrak, mintegiak, mahainguruak eta hitzaldiak antolatuz, gure gizartearen bazterketa pairatzen duten pertsonen gizarteratzea bultzatu nahi du kutxaZabal Debak.

### Oroimen Tailerra

Hasiera: Azaroan  
Iraupena: 24 ordu  
Matrikula: Urriaren 31 rarte

#### Helburuak:

- Adineko pertsonen eguneroko bizitzan oroimenak daukan garrantziak jabetzea.
- Oroimena hobetu eta beraren galera prebenitzeko, hainbat teknika eta jarraibideren bidez egituraturiko ikaskuntza-prozesua zabaltea.

### Adineko Pertsonekin Izan-Beharreko Trebetasun Sozialak Lantzeko Tailerra

Hasiera: Urtarrilaren  
Iraupena: 24 ordu  
Matrikula: Abenduaren 1etik 20ra bitartean

#### Helburuak:

- Adineko pertsonekin garatu-beharreko jardunbidean trebetasun sozialek daukaten garrantziak jabetzea.
- Adineko pertsonak gogoan harturik, TTSSetan egituraturiko ikaskuntza-prozesua aurrera eramatea.
- Jokabide-nahasteei aurre egiteko zenbait teknika eta jarraibide lantzea.

### Psikomotritate Tailerra Adinekoen Eskuhartzerako

Hasiera: Martxoan  
Iraupena: 12 ordu  
Matrikula: Urtarrilaren 15etik 31ra bitartean

#### Helburuak:

- Prebentzio, berreziketa eta terapia modura, psikomotritatearen aurkikuntza egitea.
- Adineko pertsonaren ongizate psikikorako, mugimenduak daukan garrantzia eta eragina nabarmentzea.

### Musikoterapia Tailerra Adinekoen Eskuhartzerako

Hasiera: Martxoan  
Iraupena: 12 ordu  
Matrikula: Urtarrilaren 15etik 31ra bitartean

#### Helburuak:

- Soinuen eta musikaren fenomenoaz aztertzea.
- Musikoterapiako teknikak lantzea.
- Eskuhartzerako modalitateak ezagutzea.





TRADIZIOAK/ HILETAREN INGURUKO OHITURAK ALDATU EGIN DIRA

# Ondra-bazkaritik errausketara

DOMU SANTU EGUNA GARAI EGOKIA DUGU HISTORIARI BEGIRATU ETA DEBAGOIENEO OHITURAK ZELAN ALDATU DIREN IKUSTEKO

LEIRE KORTABARRIA

**H**eriotza batek dakartzan eginbeharrak luze eta zailak iruditzen zaizkigu gaur egun. Baina hori txiki gertzen da gure arbasoek bete behar zituzten tradizioen zerrendari begiratzen badiogu. XIX. mendera arte ezkontza edo bataio bat bezala zainzen ziren erritual horiek guztiak.

Hiletak *erakusleihu sozial* izatearen funtzioa betetzen zuten Debagoienez orain dela ez askora arte. Eta orduko familiek oso modu desberdinean arduratzen ziren hileta erritualek. Horren berri ematen digu Juan Madariaga irakasle eta adituak: "Familia asko zorretan eta guzti sartzen ziren tradizioarekin betetzeko. Ekintza garrantzitsuena zen *ondra-bazkaria* izenekoa. Plater garestiak eskaintzen zituzten eta gonbidatu asko izaten zituzten", azaltzen digu.

Bazkari horretako giroa ere ez zen uste genezakeen bezain goibela izaten: "Edozein bazkari bezalako giroa egoten zen. Txisteak kontatzen ziren, denetariokak; barre egiten zen..."

Negarrak ere bere tartea zuen, eta horretaz arduratzen ziren profesionalak ere ordaintzen zituen familiak: negartiak ziren, sos batzuen truke negar egiten zuten emakumeak. Hildakoaren omenezko bertsoak botatzen zituzten emakume asko ere bazeuden Debagoienez, XIX. mendera arte: erostariak ziren.

## ELIZAREN PAPERA

Gorpuzbidetara, eskaintzak, ehorzketak elizan, mezak... Prozesu luze eta garestia zen hiletarena. Ez da ahaztu behar, batetik, oso gertakizun soziala zela garai haietan; eta, bestetik, eta batez ere, oso gizarte elizkoia zela.

Elizak oso paper garrantzitsua izan zuen Debagoienezko mentalitatea finkatzerako orduan. Bere interesa argia zen: "Elizarendako, diru iturri oso handia ziren hiletak. Oñatin, adibidez, hil-jantziak mojek egiten zituzten, eta komentuen ekonomia zati garrantzitsua zen horien salmenta".

Eliza eraikin berak ere izugarrizko papera zuen: izan ere, XVIII. mendera arte, ehorzketak elizan bertan egiten ziren.

Eskaintzak oso garrantzitsuak ziren gurean ere, baina, oraingo lore sorta ikusgarriak gauza berria dira: izan ere, XIX. mendera arte, ogia, garia, abereak... izaten ziren eskaintza, ez



## ESKAITZAK

- Ogia, abereak... eskaintzen zituzten arimen alde

Mota askotako eskaintzak egin izan dira Euskal Herrian hildakoaren arimen alde. Irudian agertzen dena da eliza baten egindako gari eskaintza bat. Abereak eskaintzea ere ohiko gauza izan da. Lore eskaintza oso berria da: XIX. mendean hasi zen.



## GORPUZBIDEAK

- Gorpua etxetik elizara eraman


Etxetik elizara eta hilerria bide jakin batetik eraman behar zen gorpua. Segizioak -famiako eta herrikoek osatutako taldeak- eramaten zuten gorpua. Errespetu handia zieten herritarrek bide hauei, eta ezin zen beste bide bat hartu guztiz ezinbestekoa ez bazen. Irudian, Oñatiko gorpuzbidetara bateko gurutzetara.



## LUTOA

- Ibarrean, urtebetez

Lutoa modu zorrotzean errespetatzen zen Euskal Herrian. Iraupen desberdina zuen lekua araberak; Debagoienez, urtebetezko izaten zen; baina beste leku batzuetan, hiru urte, bost urte... ere iraun zezakeen luto garaiak. Irudian Elosuko emakume bat, segizioan parte hartzeko prest, eta lutoz jantzita.



## EUSKAL IKURRAK

- Argizaiola, hilobiaren ondoko argia

Euskal Herriko apaingarri tipikoak hileta erritualetan izan dira argizaiolak edo ezkoak, taula baten inguruan batutako argizari-sokak edo kandela oso meheak. Arrasaten, adibidez, *txirristola* izenez ezagutzen ziren.



## EMAKUMEEN PAPERA

- Bertsolariak, negartiak...

Hileta erritualek hainbat parte hartzaile edukitzen zituzten, batez ere, emakumezkoak. Irudian, hainbat emakume, eliza atarian, hildakoaren arimaren alde eskaintzak daramatzatela. XVIII. mendera arte, hildakoaren omenezko bertsoak botatzen zituzten emakumeak ere bazeuden; baita negartiak ere.

loreak. "XIX. mendean, elorri-adarrak erabiltzen hasi ziren hildakoaren ohea apaintzeko; loreak, baina, XIX. mende bukaerako kontua dira", dio Juan Madariagak.

Bitxia da baita jakitea Domu Santu eguna azaroan ospatzea ere gauza berria dela: orduan, otsailan zen Hildakoen Eguna.

Eredu "barroko" hori, irakaslearen hitzetan, XIX. mendean hasi zen aldatzen.

## ASPALDIKO OHITURAK GALDU

Europar eta Euskal Herrian, aldaketa handiko garaia izan zen XIX. mende bukaera; 1840 urtean izan ziren aldaketa garrantzitsuenak. "Gero eta meza gutxiago, argizaiola gutxiago... daude garai horretatik aurrera. Elizako ehorzketek arazoak ematen dituzte eta hilerriak sortzen dira. Kontua da gizartea askoz laikoagoa dela, eta hori erabakigarria da", azaltzen digu irakasle oñatiarrak.

Garai berriekin, antzinako ohitura konplexuak desagertzen joaten dira, pixkana-pixkana. Urte horietatik aurrera, orain gutxira arte gehien aukera izan diren ehorzketak nagusitu ziren.

XIX. mendean ezarritako eredu hau aldatzen hasia da, ordea.

## ERRAUSKETA

"Orain, gero eta gehiagok aukatzen dute errausketa. Horrek zerikusia du Elizak izan duen eraginaren galerarekin. Tanatorioak ere ugartu egin dira urte gutxian. Tanatorioen eta errausketaren eredu Frantzia eta AEBetan hasi zen, eta orain, hemen ere nagusitzen dabil", azaltzen du Juan Madariagak.

Errausketa eta tanatorioen prezioei begira, esan dezakegu gauza bat ez dela aldatuko: hiltzea beti izango da kontu garestia.

**NATUR HOUSE**  
Dietetika eta Elikadura

**KONTSULTA DOHAINIK**  
**Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.**

EDURNE ARKAUZ  
Dietetika eta Elikaduran Diplomatu

Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34

**HILARION**  
**Hilarion**  
**jatetxea-taberna**

Larrea plaza 5 • ARRASATE • 943 77 01 69

Eguneko menuak  
Karta zabala  
Era guztietako bazkari eta afariak  
Talde gazteendako prezio bereziak  
Plater konbinatuak / Ogitartekoak / Sandwichak



# Urr. 31-Aza. 7

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com) • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## IKASTAROAK

### ARRASATE

► **Capoeira dantza brasildarra** ikasteko jardunaldiak antolatu ditu gazte batzarrak. Azaroaren 4tik aurrera, martitzenero eta eguenero izango dira, 19:30-21:00. Eta erakustaldia egongo da bihar, zapatua, gaztetxean, 19:00etan.

► **Hainbat ikastaro antolatu ditu Txatxilipurdik** zapatu goizetarako: azaroaren 8an, henna ikastaroa egongo da; azaroaren 15ean, automakillaje ikastaroa; eta azaroaren 22an, ile apaindegi ikastaroa (txurroak, luzapenak...). Erguingo Gazte Txokoan izango dira hirurak, 10:30etik 13:30era. Hiru euro ordaindu beharko dira. Mugaeguna azaroaren 4a da, eta leku mugatuak egongo dira.

► **Gazteendako ikastaroak** antolatu ditu Gazte Bulegoak. Arratiako jota ikastaroa, irrati esataritza eta antzerki mugimendu jardunaldiak egongo dira. Izena emateko, deitu 943 77 00 65 telefonora edo idatzi honako helbidera: [gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net](mailto:gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net).

### BERGARA

► **Sendabelar ikastaroa** antolatu du Jardun elkarteak azaroaren 10ean, 17an eta 24an eta abenduaren 1ean. Bergarako Arrizuri jauregian izango dira eskolak, 19:30etik 21:30era. Jarduneko bazkideek 20 euro ordaindu beharko

dituzte eta gainerakoek, 25. Izena emateko, deitu 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 telefonoetara, edo idatzi [kulturajardun@topagunea.com](mailto:kulturajardun@topagunea.com) helbidera.

### ESKORIATZA

► **Nagusiendako fandango eta arin-arin ikastaroa** antolatu du Udalak, azaroaren 4tik 23ra, 19:00-20:30. Udal Pilotalekuan izango dira eskolak. Izena emateko, deitu 943 71 46 88 telefonora edo idatzi helbide honetara: [euskara@eskoriatza.net](mailto:euskara@eskoriatza.net). Urriaren 31 da mugaeguna. Martitzetan izango dira eskolak, astean behin, hortaz.

## DEIAK

### BERGARA

► **Bergara, historia topagunea** zikloaren barne, berbaldia egongo da datorren martitzenean, azaroak 4, Migel Altuna institutuan, 19:30ean. Sarrera, doan.

► **Gizonezkoen zeregina sexismoaren aurrean** berbaldia egongo du Xabi Odriozolak hilaren 5ean, eguaztena, Emakume Txokoan, 19:00etan.

► **Elkarri mugimenduko** kide Jonan Fernandezek hitzaldia egongo du datorren eguenean, urriak 6, Migel Altuna institutuan, 19:30ean.

► **Eguraldi iragarpenak: tenporak**

**ala isobara mapak?** hitzaldia egongo du Pello Zabala eguraldi iragarleak datorren eguenean, azaroak 6, udaletxeko areto nagusian, 19:30ean. Sarrera doan izango da.

► **Jan daitezkeen eta kutsagarriak diren perretxikoen** inguruko argibideak emango ditu Javier Elortzak datorren egubakoitzean, azaroak 7, Pertxa elkartearen, 20:00etan.

### ELGETA

► **Olio bilketa** egongo da gaur, egubakoitza. Hain zuzen ere, Herriko Plazan egongo da olio-bilketa ibilgailua, 16:00etatik 20:00etara.

### ESKORIATZA

► **Esait** Euskal Selektzioaren aldeko iritzi taldearen hitzaldia egongo da datorren eguenean, azaroak 6, gaztetxean, 19:00etan.

### EUSKAL HERRIA

► **Nafarroa Oinez 2003ko** antolatzaleek laguntza jasotzeko deia egin dute. Hain zuzen ere, materiala saltzeko datorren astera arte dute muga, eta salmantan laguntzeko interesa dutenak harremanetan jar daitezke eurekin, hain zuzen ere, 948 88 06 19 telefono zenbakian (Pili).

### LEINTZ GATZAGA

► **Sendabelarren gaineko** berbaldia egongo du Alberto Altubek hilaren 7an, Garro jauregian, 18:30ean.

### OÑATI

► **Elkarri mugimenduak** kale agerraldia deitu du bihar, zapatua, Foruen plazan, eguerdian.

### ELGETA

► **Antzerki saioa** eskainiko du Interruptus taldeak gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

### ELORRIO

► **Yuri Sam. Otoitza** antzezlanaren eskainiko du FTI- Antzerkiola Imaginarioa taldeak gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean.

► **Potestad** antzezlanaren eskainiko du Eduardo Tato Pavlovsky-k datorren egubakoitzean, azaroak 7, Arriola aretoan, 22:30ean.

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► **Las punkis también lloran** antzezlanaren egongo da gaur, egubakoitza, Emakume Txokoan, 19:00etan.

► **Guillermo Velazquez eta Xichu mendilerroko lehoien eta Jon Sarasuaren** emanaldia egongo da datorren egubakoitzean, azaroak 7, Amaia Udal Antzokian, 22:30ean. Ahozko Inprobisazioa Munduan delako zikloaren barne dago ekintza hori.

### BERGARA

► **Sgorbypark** antzezlanaren eskainiko du Fabbrica del Vento (Italia) taldeak datorren egubakoitzean, hilak 7, Zabalotegi aretoan, 22:30ean.

## ERAKUSKETAK

### ANTZUOLA

► **Argazki Lehiaketako lanen** erakusketa egongo da bihar eta etzi, azaroak 1 eta 2, Orlan etxean, 12:00-14:00 eta 18:30-20:00.

### BERGARA

► **Sara Otaño margolariaren** erakusketa dago kultura etxean: astelehenean egubakoitza, 18:00-21:00; zapatuetan eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-21:00.



**TABERNA-BERRI**  
Durana kalea 26  
Tel.: 943 79 20 67  
943 79 49 41  
Posta-e: [tabernaberri@terra.es](mailto:tabernaberri@terra.es)  
JATE TXEBA ARETU KABALETAK

aste buruetarako gazte menuak egin zure aukera



### ► JAIK

## GAZTAINERRE EGUNA OSPATUKO DUTE DATORREN EGUBAKOITZEAN

Udazkena iritsi dela ospatzeko, Gaztainerre Eguneko ekitaldiez gozatzeko aukera izango dugu beste behin Elgetan. Azaroaren 7an izango da hori, hau da, datorren egubakoitzean. Gazte Asanbladak herritar eta debagoiendar guztiendako moduko ekitaldiak antolatu ditu egun horretarako. Ekitaldi nagusia izango da gaztainerre erre banaketa. Herriko Plazan erreko eta banatuko dituzte gaztainerre, 19:00etan. Gaztainerre borondatearen truke emango dituzte. Bestalde, jaialdia biribilitzeko rock kontzertua antolatu dute gau horretarako: hain zuzen ere, Eraso! talde zarauztarrak eta Supercools talde beragararrak joko dute, gaztetxean, 23:00etan.

**Non:** Elgetan. **Noiz:** azaroak 7, egubakoitza. **Ordua:** gaztainerre banaketa 19:00etan izango da; kontzertua, 23:00etan.





## ‘EL FEELING ES ASÍ’, UMOREA ETA KRITIKA BERGARAKO GAZTETXEAN

Bi pertsonaia, disko makina bat —baina binilozko disko haiek jotzen dituen horietakoa—, musika asko, eta “modu argian dibertitzeko aukerarik ematen ez duen kultura globala”. Horiek oinarri hartuta, umorez eta kritikaz betetako *El feeling es así* antzezlan muntatu du Tearto taldeak. Maria Urtzelai aktore bergararrak parte hartzen du muntaian. Bergarako gaztetxean izango da, gaur, egubakoitza, 22:30ean.

### GASTEIZ

► **Xabier de Zerio** eskultoreak erakusketa du Felisa Navarro aretoan (Cercas Bajas 2), astelehenetik zapatua, 17:00-21:00.

## LEHIAKETAK

### DEBAGOIENA

► **XVII. Arrasate Lehiaketak** deitu ditu AED elkarteak. Ipuin, poesia, bertso-paper, komiki eta euskalki grabaketa kategorietan parte hartu ahal izango da. Parte hartzeko mugaeguna otsailaren 6a izango da. Argibide gehiagorako, jo AEDra.

### EUSKAL HERRIA

► **Gabonetako Argazki Lehiaketa** deitu du Topaguneak, Euskara Elkarteen Federazioak. Horren bidez, Topaguneak bere bezero, bazkide eta lagunei urte berri on eta Gabon jai zoriontsuak opatzeko euskarria diseinatzea du helburu. 14 urtetik gorakoek hartu ahal izango dute parte. Gehienez ere bost lan aurkeztu ahal izango du lagun bakoitzak. Lanok Arrasateko AED elkartean entregatu beharko dituzue, azaroaren 22a baino lehen. Saria da 300 euro argazkigintza materialean.

► **Jentilak VI. Kopla Paper Lehiaketa** deitu du Arratiako bertso eskolak. 15 urtetik aurrerakoek parte hartu ahal izango dute. Bidali lanok honako helbidera: Zeanuriko udala; VI. Kopla Paper Lehiaketa; 48144 Zeanuri.

## MUSIKA

### ARAMAIO

► **Arrasate Musikaleko txistu taldeak** emanaldia egingo du datorren egubakoitzean, azaroak 7, Gantzagako elizan, 21:30ean.

### ARETXABALETA

► **Fotopoemak** diskoa aurkeztuko du Joseba Gotzon kantautoreak datorren eguenean, hilak 6, udaletxe zaharrean, 22:00etan.

### BERGARA

► **Symphony X** eta **Headline** taldeen emanaldia egongo da bihar, zapatua, Jam aretoan, 20:00etan.  
► **Legen Beltza** taldearen kontzertua egongo da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.  
► **Machine head** eta **Kill II This** taldeek emanaldia egingo dute datorren egubakoitzean, azaroak 7, Jam aretoan, 22:00etan.

### ESKORIATZA

► **Nuevo Catecismo Catolico**, **Lehiotikan** eta **Klineks** taldeen emanaldia egongo da bihar, zapatua, gaztetxean, 21:30ean.

# Zinema

### ARRASATE

#### ■ AMAIA ANTZOKIA

**La pelota vasca**  
Zapatua: 19:00, 22:00.  
Domeka: 19:00.  
Astelehena: 19:00.

### BERGARA

#### ■ NOVEDADES

**Italian job**  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30.

**Las mujeres de verdad tienen curvas**  
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

#### ■ OÑATIKO ZINEMA

**Dos policías rebeldes 2**  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 22:30.  
Astelehena: 19:30.

**Shin chan**  
Zapatua: 17:00, 19:00.  
Domeka: 17:00, 19:00.

**Bowling for Columbine**  
Eguena, zine-kluba: 20:00.

### EIBAR

#### ■ UNZAGA

**Te doy mis ojos**  
Egubakoitzetik eguaztenara:  
17:00, 19:30, 22:15.

#### ■ RIALTO

**Noviembre**  
Egubakoitzetik eguaztenara:  
17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

#### ■ GURIDI

**Crueldad intolerable**  
Egubakoitzetik domekara:  
17:00, 19:45, 22:30.

**Mystic River**  
Egubakoitzetik domekara:  
17:00, 19:45, 22:30.

**Underworld**  
Egunero: 17:00.

**Buffalo soldiers**  
Egubakoitzetik domekara:  
17:00, 19:45, 22:30.

**Basic**  
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

**El mexicano**  
Egunero: 17:30.

**La pelota vasca**  
Egunero: 20:00, 22:30.

**Hollywood: departamento de homicidios**  
Egubakoitza: 17:30, 22:30.  
Zapatua eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

**Días de fútbol**  
Egubakoitzetik domekara:  
19:45, 22:30.

**El viento nos llevará**  
Eguena, urriak 30, zine kluba:  
19:45.

#### ■ MIKELDI ZINEMAK

**Freddy contra Jason**  
Egunero: 17:15.

**El mexicano**  
Egunero: 22:30.

**Underworld**  
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

**La pelota vasca**  
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

**Enigma**  
Egunero: 20:00, 22:30.

**Amar peligrosamente**  
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

**Piratas del Caribe**  
Egunero: 17:15.

**Dos policías rebeldes 2**  
Egunero: 17:00, 19:45, 22:45.

**Buffalo soldiers**  
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.  
Martitzena eta eguena,  
ikuslearen eguna.

#### ■ FLORIDA-GURIDI

**Te doy mis ojos**  
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

**Betizu izar artean**  
Egunero: 17:30.

**El final de la noche**  
Egunero: 20:00, 22:30.

**La flaqueza del bolchevique**  
Egubakoitzetik domekara:  
17:00, 19:45, 22:30.

**Planta 4ª**  
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

**Amar peligrosamente**  
Egunero: 17:30, 22:30.

**El punto sobre la i**  
Egubakoitzetik domekara:  
17:00, 19:45, 22:30.

**Carmen**  
Egunero: 20:00.

**La mancha humana**  
Egubakoitzetik domekara:  
17:00, 19:45, 22:30.

#### ■ ABACO-LAKUA ZINEMAK

**El mexicano**  
Egubakoitza eta zapatua:  
22:00, 00:30.  
Domeka: 22:00.

**Freddy contra Jason**  
Egubakoitzetik domekara:  
16:15, 18:15.

**Amar peligrosamente**  
Egubakoitzetik domekara:  
17:00, 19:30.

**Días de fútbol**  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:45, 19:45, 22:05, 00:30.  
Domeka: 16:45, 19:45, 22:05.

**Dos policías rebeldes 2**  
Egubakoitzetik domekara:  
16:15, 19:15.

**Hollywood: departamento de homicidios**  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:25, 20:05, 22:25, 01:00.  
Domeka: 16:25, 20:05, 22:25.

**Planta 4ª**  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:10, 18:10, 20:10, 22:20,  
00:30.  
Domeka: 16:10, 18:10, 20:10,  
22:20.

**Divina pero peligrosa**  
Egubakoitza eta zapatua:  
22:15, 00:30.  
Domeka: 22:15.

**Underworld**  
Egubakoitza eta zapatua:  
17:00, 20:00, 22:30, 01:00.  
Domeka: 17:00, 20:00, 22:30.

**Soñadores**  
Egubakoitza eta zapatua:  
20:15, 22:30, 01:00.  
Domeka: 20:15, 22:30.

**La mancha humana**  
Egubakoitza eta zapatua:  
17:15, 20:05, 22:25, 01:00.  
Domeka: 17:15, 20:05, 22:25.

**El punto sobre la i**  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:30, 18:20, 20:20, 22:15,  
00:30.  
Domeka: 16:30, 18:20, 20:20,  
22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

#### ■ YELMO CINEPLEX

**Alien: el octavo pasajero**  
Egubakoitza eta zapatua:  
20:20, 22:35, 00:50.  
Domeka: 20:20, 22:35.

**Hollywood: departamento de homicidios**  
Egubakoitza eta zapatua:  
15:40, 17:55, 20:10, 22:25,  
00:40.  
Domeka: 12:15, 15:40, 17:55,  
20:10, 22:25.

**Crueldad intolerable**  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:40, 18:40, 20:40, 22:40,  
00:40.  
Domeka: 12:15, 16:40, 18:40,  
20:40, 22:40.

**Amar peligrosamente**  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:30, 19:00, 21:30, 00:05.  
Domeka: 12:15, 16:30, 19:00,  
21:30.

**Mystic River**  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:00, 18:55, 21:40, 00:15.  
Domeka: 12:15, 16:00, 18:55,  
21:40.

**Underworld**  
Egubakoitza eta zapatua:  
15:45, 18:00, 20:15, 22:30,  
00:45.  
Domeka: 12:15, 15:45, 18:00,  
20:15, 22:30.

**El mexicano**  
Egubakoitza eta zapatua:  
18:50, 20:45, 22:45, 00:45.  
Domeka: 12:15, 18:50, 20:45,  
22:45.

**Dos policías rebeldes 2**  
Egubakoitza eta zapatua:  
19:15, 22:00, 00:45.  
Domeka: 19:15, 22:00.

**Días de fútbol**  
Egubakoitza eta zapatua:  
15:35, 17:50, 20:05, 22:20,  
00:35.  
Domeka: 12:15, 15:35, 17:50,  
20:05, 22:20.

**La pelota vasca**  
Egubakoitza eta zapatua:  
15:50, 18:05, 20:20, 22:35,  
00:50.  
Domeka: 12:15, 15:50, 18:05,  
20:20, 22:35.

#### Carmen

Egubakoitza eta zapatua:  
15:30, 17:45, 20:00, 22:20,  
00:35.  
Domeka: 12:15, 15:30, 17:45,  
20:00, 22:20.

**La mancha humana**  
Egubakoitza eta zapatua:  
15:45, 18:00, 20:15, 22:30,  
00:45.  
Domeka: 12:15, 15:45, 18:00,  
20:15, 22:30.

**Papá Canguro**  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:25, 18:25.  
Domeka: 12:15, 16:25, 18:25.

**Basic**  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:30, 18:30, 20:30, 22:30,  
00:30.  
Domeka: 12:15, 16:30, 18:30,  
20:30, 22:30.

**Los piratas del Caribe**  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:05.  
Domeka: 12:15, 16:05.

**Italian job**  
Egubakoitza eta zapatua:  
17:50, 20:00, 22:20, 00:35.  
Domeka: 17:50, 20:00, 22:20.

**Simbad**  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:00.  
Domeka: 12:15, 16:00.

**Los rugrats**  
Egubakoitza eta zapatua:  
15:45, 17:30.  
Domeka: 12:15, 15:45, 17:30.  
Astelehena, ikuslearen eguna.

Te doy mis ojos: ●●●● | La pelota vasca: ●●●● | Soñadores: ●●●● | Hulk: ●● |

ESKASA: ● BALEKOA: ●● ONA: ●●● OSO ONA: ●●●● BIKAINA: ●●●●●

## KRITIKA

### LA MANCHA HUMANA


PUNTUAZIOA: ●●●

**ZUZENDARIA:** Robert Benton.

**AKTOREAK:** Anthony Hopkins, Nicole Kidman, Gary Sinise.

**X**obert Bentonek urte asko daramatza zineman. Gidoilari moduan eman zituen lehen urratsak: Bonnie and Clyde eta El día de los tramosos filmak idatzi zituen, eta gero, bere gidoiekin edo beste idazle batzuek idatzitakoekin zuzendari lanak egitera pasatu zen. Kramer contra Kramer eta En un lugar del corazón bere lan aipa-

garrienen artean daude. Zuzendaria, sarritan kritikoengandik gutxietsia, gauza da bere lanei sendotasuna, gorpuzta eta sentimendua emateko. Orain estreinatzen da Bentonek zuzendutako azkeneko filma, La mancha humana, Philip Roth idazle ospetsuaren izen bereko eleberriaren oinarrituta. Zinemara egokitzeko proiektu zaila da: bi ordu baino zerbait gutxiagoko iraupenarekin ezinezkoa da liburuan kontatzen den guztia azaltzea. Bentonek eleberriaren digresio tonua arintzen du, pertsonaia batzuk eta pertsonaia protagonisten iraganaren hainbat informazio kentzen ditu. Honela, pertsonaien definizioa zerbait murrizten da (agian, Ed Harris-ek egiten duen pertsonaia zerbait zehaztugabeagoa agertzen da) istorioaren momentu garrantzitsuetan eta esentzian kontzentratzeko. Dena den, per-



tsonaia koherentzia eta doitasunez erretratatzeko eta nahiko gorabeheratsua den istorioari sinesgarritasuna ematea lortzen du.

Aurreiritziz beterikoa, puritanao, intolerantea eta itxuran babestuta dagoen gaur egungo gizarteari buruz hitz egi-

teaz gain, mina, aladurak, gezurra eta betiko markaturik utzi zaien iragana gainditzen saiatzen diren pertsonaia bakar-tiak erakusten dizkigu La mancha humana-k. Oraingo eta iraganeko istorioa da, geroa pertsonaiaentzako ezinezkoa da. Orainean Anthony Hopkins eta Nicole Kidman aktoreak dauzkagu; hauek interpretazio ona eskaintzen dizkigute eta filmari taxua eta indarra ematen badiote ere, ez ditugu ahaztu behar iraganen gertatukoari buruzko flash-back adierazgarriak; eszena horiek oso onak dira (pertsonaia protagonistak bere amarekin duen eszena benetan hunkigarria da).

Benton-ek zinemara egokitzeko zaila den eleberri bati zinema klasikoaren itxura ematen dio.

ANTONIO ZABALA



**INMO f3**  
SARE inmobiliaria

Erdiko kalea 26  
ARRASATE  
943 79 12 79

**SALGAI**

**BERGARA**

- 60 m<sup>2</sup>. Hiru logela, egongela, sukaldia, bainugela. Berrituta. 117.197,36 euro / 19.500.000 pta.
- Bolu auzoan. 96 m<sup>2</sup>. Hiru logela, sukaldia, egongela eta bainugela bi. Oso argitsua. Ondo dago.
- 50m<sup>2</sup>. Bi logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Berrituta. Erdialdean.

**ARRASATE**

- 69 m<sup>2</sup>. Logela bi, egongela, sukaldia, bainugela, sotoa. Guztiz berrituta.
- Erdialdean etxebizitzarako nahiz negozioarako balio duen etxebizitza salgai. Leku ezin hobean. Informazio gehiago bulegoan.
- Erdialdean 60 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Bi logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Erdi berrituta. Kanpoaldea.

**ARETXABALETA**

- Erdialdean lokala salgai, etxebizitza egiteko baimenarekin. 82 m<sup>2</sup>. Lehenengo solairuan dago.

**ANTZUOLA**

- 40 m<sup>2</sup>. Bi logela, sukaldia eta egongela. Berrituta.

**Krosi**  
INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
Santi Kutz 8 • LEGAZPI  
Tel.: 943 73 05 25

**BERGARA / Etxebizitzak salgai**

- Zubiaurre. 81 m<sup>2</sup>. Bertan bizitzen hasteko gertu.
- Zubiaurren duplex txikia. Berrituta.
- Martzial Agirre. 90m<sup>2</sup>. Aukera ona.
- Bolu. 96m<sup>2</sup>. Hiru logela.
- Osintxun etxebizitzak salgai.

**BERGARA / Taberna salgai eta errentan**

**BERGARA / Lokalak salgai eta errentan**

**BERGARA / Garajeak salgai eta errentan**

**BASERRIAK**

- Osintxun 400 m<sup>2</sup> + 9 hektarea. Pinu eta fruitarbola ugari.
- Angiozarren 917 m<sup>2</sup>. Oso egoera ona.
- Sorraluze, Ormaiztegi, Gabiria, Elosu, Zegama, Legazpi.

**ANTZUOLA / ETXEBIZITZAK SALGAI**

- Beheko auzoa. 60m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.

**OÑATI / Etxebizitzak salgai**

- 96 m<sup>2</sup>. Hiru logela eta terraza.

**1/ ETXEBIZITZAK**

**101. SALDU**

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai erdialdean. 80 m<sup>2</sup>. Hiru logela, egongela, sukaldia, bainugela eta hall-a. Dena kanpora begira. Berogailua: gas naturala. Berehala bizi izatera joateko. 627 34 92 27 (deitu 16:00etatik 20:00etara).

**Arrasate.** Alde zaharrean etxebizitza salgai. 70 m<sup>2</sup>. Berrituko. 152.000 euro. 651 59 64 55.

**Bergara.** Bolu etxebizitza salgai. 98 m<sup>2</sup>. Ganbara (16 m<sup>2</sup>). Hiru logela, bi bainugela, hall-a, trasteleku, sukaldia, egongela. 943 76 98 14.

**Bergara.** Zubiaurren etxebizitza salgai. 60 m<sup>2</sup>. Hiru logela, sukaldia, egongela, bainugela. Maria Jesus. 943 76 71 12.

**Elgeta.** Bi etxebizitza salgai. Bat, berrituko. 946 81 71 97.

**103. ERRENTAN EMAN**

**Benidorm.** Apartamentua alokairuan. Bi logela. Hondartzatik gertu. 630 41 84 65.

**Krosi**  
INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
Santi Kutz 8 • LEGAZPI  
Tel.: 943 73 05 25

**ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak**

- 276.465,57 euro (49 milioi).
- Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
- Beheko solairuan: sukaldia, jangela, egongela, bainugela.
- Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
- Teilatupeko solairua: m<sup>2</sup> ugari egokitze moduan.

# Iragarki sailkatuak

943 76 92 71 edo [sailkatuak@goiena.com](mailto:sailkatuak@goiena.com)

**ARRASATE**

**GOIZ ALDE KAFETEGIAN NESKA BEHAR DA ZERBITZARI LANETARAKO.**  
943 79 11 15

**ARRASATE**

**PERTSONA BEHAR DA ILE-APAINDEGIAN LAN EGITEKO.**  
943 77 16 31

**LAN ESKAINTZA**

**LAIKAN EUSKARA ELKARTEAK ELKARTEAREN KOORDINAZIO LANAZ ARDURATZEKO LANGILE BAT KONTRATATU NAHI DU.**

**ESKAINTZEN DA**

Egun erdiko dedikazioz sei hilabeteko kontratua eta luzatzeko aukera.

**BALDINTZAK**

- Batxilergoa edo baliokidea.
- EGA edo baliokidea.

**Baloratuko direnak:**

- Herrikoa izatea, bailarakoa izatea
- Arloarekin zerikusia duten ikasketak.
- Esperientzia

**Interesatuok Deitu 943 71 63 11 telefonora (arratsaldean) edo bidali curriculumak Laixanera (San Juan kale 2, 1. 20560 Oñati).**

laixan@topagunea.com

**EPEA: AZAROAREN 10A**

**KANPANZAR**

**Kanpanzar ondoan dagoen SARA MERENDEROAK behar ditu:**

- Pertsona bat sukaldian laguntzeko eta garbitzeko
- Bi zerbitzari

**Eskaintzen da:**

- Egun osoko jarduna
- Oporrak:
- Gabonetan, 10 egun
- Aste Santuan, 6 egun
- Abuztuan, 3 aste

**943 77 15 86**

**ARRASATE**

**PERTSONA BEHAR DA ILE-APAINDEGIAN LAN EGITEKO.**  
676 22 33 18

**BERGARA**

**TERRAZADUN TABERNA ALOKAIKIRUAN. ERDIALDEAN.**  
628 03 03 75

**ESKAINTZEN DA**

Egun erdiko dedikazioz sei hilabeteko kontratua eta luzatzeko aukera.

**BALDINTZAK**

- Batxilergoa edo baliokidea.
- EGA edo baliokidea.

**Baloratuko direnak:**

- Herrikoa izatea, bailarakoa izatea
- Arloarekin zerikusia duten ikasketak.
- Esperientzia

**Interesatuok Deitu 943 71 63 11 telefonora (arratsaldean) edo bidali curriculumak Laixanera (San Juan kale 2, 1. 20560 Oñati).**

laixan@topagunea.com

**EPEA: AZAROAREN 10A**

**Garbi S.L.**

**PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**

**943 33 18 37 (HERNANI)  
649 84 67 09 (BERGARA)**

**TURANDOT**  
Lagunak gara

Lagun berriak egin eta ondo pasatu nahi duzu? Afariak, asteburuak, irteerak, eta abar antolatzen ditugu. Ezkongabe, alargun, dibortziatu eta bananduendako. Edozein adin, izaera, klase sozial eta joerakoak.

Dei egiguz 943 34 12 19 telefonora. Informazio guztia bidaliko dizugu, konpromiso barik.

**TURANDOT GIPIZKOA**

**104. ERRENTAN HARTU**

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Erdialdean. 635 71 15 34.

**105. ETXEA OSATU**

**Aretxabaleta.** Logela alokatzen da sukaldia erabiltzeko aukerarekin. 617 28 27 64.

**Arrasate.** Bi lagun behar dira etxebizitza osatzeko. 609 18 41 48.

**2/ GARAJEAK**

**201. SALDU**

**Aretxabaleta.** Araba etorbidean garaje itxia salgai. 20 m<sup>2</sup>. 943 79 69 83.

**Oñati.** Muiua kalean garaje salduko nuke. Telefonoa: 615 71 53 29.

**203. ERRENTAN EMAN**

**Arrasate.** Garaje itxia alo-

katzeko daukat Uarkapen. 656 76 38 28.

**Arrasaten.** Kontzezinon garaje itxia ematen da errentan. 943 79 55 20.

**Bergara.** Bazterreka kalean garaje ematen da errentan. 943 76 21 39.

**204. ERRENTAN HARTU**

**Arrasate.** Eskola Politeknikotik gertu garaje hartu gura dut errentan, itxia edo irekia. 680 56 42 17.

**3/ LOKALAK**

**301. SALDU**

**Antzuola.** Lokala salgai. 112 m<sup>2</sup>. Bitan bana daiteke. Iluntzean deitu. Telefonoa: 943 78 71 85.

**Arrasate.** 26 m<sup>2</sup>. Komertziorako prestatuta. Leku onean. Prezio negoziagarria. Deitu 15:00etatik 15:30era edo 22:00etatik 22:30era. 656 75 52 28.

**4/ LANA**

**402. ESKAERAK**

**Arrasate.** 35 urteko mutil atzeritarrak gertu dago pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko edo sukaldia lanetan laguntzeko. Mutil fidagarria eta zintzoa. Aurel. Telefonoa: 666 83 21 95.

**Bergara.** Emakumea gertu gauden pertsona nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 645 49 91 05.

**Bergara.** Neska gertu gastronomia elkarteetan garbiketarako lan egiteko. Telefonoa: 943 76 71 12.

**Eskoriatza.** Neska mahai-zerbitzari lan egiteko gertu. 636 53 70 42.

**403. BESTELAKOAK**

**Debagoiena.** Diplomaduna gertu errusierako interprete lan egiteko. Esperientziaduna. Telefonoa: 943 76 63 10.

**5/ IRAKASKUNTZA**

**502. EMAN**

**Aretxabaleta.** Ingelesko eskolak ematen dira, maila guztietan. 943 79 03 83.

**6/ MOTORRA**

**601. SALDU**

**Honda CBR 600** motoa salgai. 1989 urtekoa. ITV 2005 urtera arte. 1.650 euro. 656 75 35 86.

**Peugeot 106 1.1** autoa salgai. Lau ate eta aire girotua. 45.000 kilometro. 3.000 euro. 686 64 86 65.

**Rieju RR** motorra salgai. 50 cc. Ondo dago. Telefonoa: 943 76 36 99.

**Suzuki Samurai 4x4** luzea salgai. Defentsa eta gurpil askatzailearekin. 135.000 Km. Ondo dago. Deitu astegunetan 18:00etatik aurrera. 656 71 41 59 edo 615 74 10 67.

**7/ ANIMALIAK**

**701. SALDU**

**Txakurkumeak** salgai, euskal artzain arrazakoak. 943 76 33 78.

**8/ DENETARIK**

**801. SALDU**

**Pentax P-30T** reflex argazki-kamera salgai. Objektiboa 28-30 mm-koa dauka. Flasha eta kamera-zorroa opari egiten ditut. Prezioa, negoziagarria. Deitu 21:00etatik aurrera honako telefonora: 676 92 94 53.

**Trikitia** salgai, Zero Sette markakoa. Ia erabili barik. Erraz garraiatzeko gurditxoarekin. Prezio ona. Telefonoa: 943 79 81 14.

**802. EROSI**

**Josteko** makina erosiko nuke.

Deitu telefono honetara: 943 76 38 17.

**803. EMAN**

**Arrasate.** Artilezko bi koltxo ematen ditut. Telefonoa: 943 79 33 93.

**806. GALDU**

**Arrasate.** Maritxu egunean Zara markako jak galdutuen Haizea tabernan. Era berean, marka bereko beste jak bat aurkitu genuen. 943 79 45 36.

**Bergara.** Zilarrezko eskumuturreko galdutuen, San Lorentzo eta Poligono artean, orain dela bi bat aste. Ez da eskumuturreko trinkoa. Eskertuko da. (Deitu ordutegi komertzialean). Telefonoa: 943 76 50 39.

**Urrezko** hiru eraztun galdutuen pasa den zapatuan Hotel Mondragoneko emakumezkoen bainugelara. Balio sentimental handikoa diru. Sarituko da. Noemi. Telefonoa: 943 79 37 09 edo 696 08 80 30.

**LAN ESKAINTZA**

Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak

**KAZETARIAK**  
behar ditu lan-poltsa osatzeko.

**Baldintzak:**

- Euskaraz jakitea.
- Idazten trebea izatea.

**Baloratuko da:**

- Kazetari titulua izatea.
- Esperientzia izatea.

Interesatuok bidali curriculumak helbide honetara: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Nafarroa etorbidea 2 20500 ARRASATE edo posta elektronikoz: [admi@goiena.com](mailto:admi@goiena.com)

Curriculumak aurkezteko azken eguna: **2003ko azaroaren 14a**

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

**UNED-BERGARA**

**Matrikula zaitez!**

**Ezin baduzu egunero joan klaseetara,**

**eta garai batean utzitako ikasketei heldu nahi badiezu,**

**karrera berri bat hasteko gogoak baduzu,**

**hizkuntzak ikasi... edo zure prestakuntza osatu**

**HAU DA BEHAR DUZUN UNIBERTSITATEA!**

- > 20 Karrera Unibertsitario baino gehiago
- > Ikasketa-Plan berrietara sartzeko aukera
- > Doktoretza ikastaroak, Graduondokoak, Masterrak...
- > Tutoretza Telematikoak eta jarraipen presentziala

**Urrutira baina etengabeko kontaktuan!**

**San Martín Plaza 4  
20570 Bergara  
Tlf: 943 769 033  
[info@bergara.uned.es](mailto:info@bergara.uned.es)  
[www.uned.es/ca-bergara](http://www.uned.es/ca-bergara)**



AIPAGARRI

**Kaitin Allende**

ARRASATE

**E**uskadi Irratiko *Ipurtargia* saioa hasi da oraingo astean, eta Kaitin Allende da irratsaioaren gidaria. Astelehenetik egubakoitzera, gauerditik 02:00etara egingo dute saio hori. Sexologoak, kriminologian adituak, parapsikologoak eta beste hainbat adituk parte hartuko dute kolaboratzaile.



**Joxe Etxeberria**

ARRASATE


**A**zaroaren 9an Guatemalan hauteskundeak direla-eta, Joxe Etxeberria, Aralarreko zinegotzia Arrasaten, hara joango da. Euskal Fondoko 10 ordezkari egongo dira hantxe, hauteskundeetan begirale lanak egiten. Bihar, zapatua, abiatuko dira Guatemalara, eta hilaren 13ra arte egongo dira han.



**Juli Jauregi**

ANTZUOLA

**J**uli Jauregik 100 urte bete ditu urrian; antzuolarra den arren, Zumarragan bizi da aspalditik. 100. urtebetetzea dela eta, omenalditxo egin nahi izan dio Udalak, herri osoaren izenean. Hala, Jose Anjel Zabalo alkatearen bisita jaso du oraingo astean; hainbat opari eman zizkion alkateak Juliri.




Eskela,  
urteurren meza  
edo eskertzarik jarri  
nahi baduzu,  
etor zaitez  
**GOIENKARIAren**  
ordezkaritzetako  
batera.

**Goienkaria**

Astero 21.500 etxetan.  
Eskelen prezioa: 75 €.



**Nora González Torrijo**  
Arrasate • Urriaren 21a • 3,325 Kg. • Gurasoak: **Maribel Torrijo** (Arrasate) eta **Carlos González** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Julen Gómez Ibaibarriaga**  
Arrasate • Urriaren 23a • 3,945 Kg. • Gurasoak: **Bakarne Ibaibarriaga** (Arrasate) eta **Roberto Gómez** (Arrasate). Argazkian, umea gurasoekin.




**Maria Martínez de Musitu Urkiola**  
Eibar • Urriaren 23a • 3,190 Kg. • Gurasoak: **Elena** (Arrasate) eta **Jose Luis** (Eibar). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Joseba Balanzategi Egido**  
Arrasate • Urriaren 26a • 3,350 Kg. • Gurasoak: **Jabier Balanzategi** (Arrasate) eta **Nuria Egido** (Arrasate). Argazkian, umea amarekin.



**Aner Caballero Casatorre**  
Arrasate • Urriaren 26a • 3,850 Kg. • Gurasoak: **Isi Caballero** (Arrasate) eta **Anabel Casatorre** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Pablo Manso Sánchez-Arévalo**  
Elgeta • Urriaren 28a • 3,420 Kg. • Gurasoak: **Mari Carmen** (Zumarraga) eta **Jose Ignacio** (Bergara). Argazkian, Silvia amapuntekoa eta Leire lehengusinarekin.



**Jose Ramon Petreñas** eta **Felisa Etxebarria** arrasatearrek gaur, egubakoitza, bete dituzte 40 urte ezkontuta. 1963ko urriaren 31n, hain zuzen ere, ezkondu ziren Aramaioko San Martin parrokiari. Etzi, domeka, ospatu dute urteurrena, familiarterko bazkari batekin. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, familia osoaren partetik, eta bereziki, Nerea, Xabier eta Aneren partetik!

**HILDAKOAK**

- Migel Murguzur Villar.** Oñatin, urriaren 25ean. 64 urte.
- Roman González Arzuaga.** Bergaran, urriaren 25ean. 84 urte.
- Ana Mari Letamendi Garai.** Oñatin, urriaren 26an. 68 urte.
- Manuel Zalakain Muguruza.** Bergaran, urriaren 27an. 71 urte.
- Jesus Errarte Madinabeitia.** Eskoriatzan, urriaren 27an. 61 urte.
- Elisa Uribe Goitia.** Arrasaten, urriaren 29an. 87 urte.
- Dionisio Korkostegi Murua.** Oñatin, urriaren 29an. 85 urte.

**URTEURRENA**

**Pascuala Zeziaga Olalde**

Lehen urteurreneko meza eguaztenean, azaroaren 5ean, 19:00etan, Arrasateko San Frantzisko elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

**ESKER ONA**


**Ana Mari Letamendi Garai**

Oñatin hil zan 2003ko urriaren 26xan 68 urte zittuala.



*Familiaren izenian eskerrik asko hillela-elizkizunera fan ziñanoi eta zuen laguntasuna agertu doskuzuen guztioi.*





## Amaia Udal Antzokia **AZAROA**

### ZINEMA

#### **LA PELOTA VASCA.**

Zuzendaria Julio Medem  
Azaroak 6 (osteguna), 21:30ean.  
Azaroak 8 (zapatua), 19:00 eta 22:00etan.  
Azaroak 9 (domeka), 19:00etan.  
Azaroak 10 (astelehena), 19:00etan.

#### **PI**

Zuzendaria Darren Aronofsky  
Azaroak 13 (osteguna), 21:30ean.

#### **BOWLING FOR COLOMBINE**

Zuzendaria Michael Moore  
Azaroak 20 (osteguna) 21:30ean.

#### **UN FINAL MADE IN HOLLYWOOD**

Zuzendaria Woody Allen  
Azaroak 27 (osteguna), 21:30ean.



### ANTZERKIA

#### **LAS MUJERES DE VERDAD TIENEN CURVAS**

Ados teatroa  
Azaroak 16 (domeka) 19:30ean.

#### **ENCARNACIÓN**

Antzezlea: Mercedes Farriols.  
Azaroak 23 (domeka) 19:30ean.

#### **HAUR ANTZERKIA:**

**GALTZERDIA**  
Taun Antzerki taldea.  
Azaroak 29 (zapatua) 17:00etan.



### ETA GAINERA....

#### **MUNDU ZABALEKO BERTSOLARIAK**

Gillermo Velazquez y los leones de la sierra de Xinchu  
Bertsolaria: Jon Sarasua.  
Azaroak 7 (barikua), 22:30ean.

#### **DEBAGOIENeko MUSIKA ESKOLEN KONTZERTUA**

Azaroak 14 (barikua) 19:00etan.



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN









## ILUNTZEAN

Joxe Juan  
Gonzalez de Txabarri  
solaskide.

Eguenean, azaroaren 6an  
21:15ean

**Aurkezlea:**  
Aintzane Gardoki

**Goitb**  
Goiena Telebista

*Ikusiko  
duzu!*

**ILUNTZEAN**  
**Ille apaindegia:** Gorka  
**Jantziak:** Udalaiz

## BIZI-POZA/URRIA



Hainbat osasun arazo ekiditeko, gatza neurrian hartzea beharrezkoa da Osasunerako Mundu Erakundearen ustez.

## Behar duguna baino gatz gehiago hartzen dugu, eta hori ez da ona

*Egunean sei gramo gatz hartzea gomendatzen dute adituek*

GOIENKARIA

**Osasunerako Mundu Erakundeak gomendatzen du ez hartzea egunean sei gramo gatz baino gehiago.**

Hala ere, hainbat ikerketak erakusten du, batez beste, egunero 10 eta 12 gramo gatz hartzen dugula. Kontuan izan behar da janariak berez izaten dutela gatza, batez ere aurrez gertatutakoek. Hortaz, horri gehitzen badiogu janaria presatzerakoan erabiltzen dugun gatz kopurua, ondorioa da egunean 12 gramotik gora gatz jaten dugula. Elikagaietan adituak direnek diote komeni

dela gatzaren kontsumoa murriztea eta txikitik ahasbaia hezte, gatz larregi ez erabiltzen ohitzeko eta handi egiten garenean bihotzeko arazorik edo hipertentsio arazorik ez izateko.

Pertsona heldu batek 250 edo 300 gramo gatz dauka gorputzean. Kopuru hori gaintzen bada, baina askogatik ez bada, erraz eliminatzen du gorputzak larregiko gatz kantitate hori. Arazoa sortzen da gorputzak behar ez duen gatz kantitatea, berez eliminatzea lortzen ez duenean. Orduan, gatz gutxiago hartzea izaten da onena, giltzurrunean edo bihotzean arazorik ez izateko.

Gorputzean gatz larregi izateak ura atxikitzea dakar eta, ondorioz, pisua handitzea eta gizontzea, eta bihotzak eta giltzurrunak lan handiagoa egin behar dute. Bestalde, gatz larregi izateagatik hainbat bihotzeko edo giltzurruneko gaitz har ditzakegu. Arazoa areagotzen da erretzen badugu, gizenegi bagaude edo diabetikoak bagara.

Gatza neurrian hartzea ona da digestio ona egiteko, gorputzeko likidoen maila egokiari eusteko, behar dugun mineral kantitatea hartzeko, botagarurik ez izateko eta janariari benetako zaporea hartzeko.

### NUTRIZIOA

**Elikagaietan %7,8 gehiago gastatu genuen iaz**

Consumer aldizkariak argitaratu duen ikerketa batek dio elikagaietan %7,8 gehiago gastatu genuela iaz aurreko urtean baino. Ikerketa horren arabera, gainera, kalitate handiagoko produktu berezituak aukeratzen ditugu elikagaiak erosterakoan: jatorri izendapena duten ardoak, ziurtatutako okela... Elikagaien gastu guztiaren %73,2 etxerako erosten direnei dagokie eta %26,8, berriz, taberna eta jatetxeetarako erosten direnei. Bolumenari dagokionez, erositako elikagaiak %1,9 hazi ziren iaz. Elikagai motari dagokionez, bestalde, okela erosten dugu gehien (gastu guztiaren %22), eta aurrez gertatutako janarien kontsumoa %16,6 hazi zen iaz.

### ETXEBIZITZA

**Soldatak baino %30,4 gehiago igo dira etxeak 1991 ezkerro**

Soldatak baino %30,4 gehiago igo da etxearen prezioa azken 12 urteotan. 75 metro koadroko etxe baten prezioa, esaterako, %85,4 igo da eta, aldiz, familien urteko errenta, %55. Hain justu, 75 metro koadroko etxe bat, batez beste, 58.171 euro kostatzen zen 1991n. Eta 2002an, berriz, 107.080 euro. Egoerari aurre egiteko, etxebizitza gehiago eraiki eta lurzoru eraikigarria eskuratzea eskatu diete herriaren defenda-tzaileek erakunde publikoei. Etxebizitzaren alorrean ardurak dituzten politikoei, ostera, zera diote: etxearen prezioa azken urteotan horrenbeste igo bada ez dela izan iruzurrarengatik edo espekulazioarengatik, baizik eta benetako eskaera dagoelako.





## Añai erretegia

- Eskaintza** **Nardeaga 32 / ARAMAIO**  
945 44 51 01
- Bataio eta jaunartzeak
  - Kintadak
  - Karta
- Berezitasunak**
- Arraina eta okela parrillan
  - Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik



## Baster-Alde

- Eskaintza** **Galartza auzoa / ARETXABALETA**  
943 79 24 58
- Menua eta karta
  - Ezkontzak
  - Jangela: 160 lagunendako
  - Jaunartze eta bataioak
  - Kintadak
  - Terraza
  - Aparkalekua
- Astelehenetan itxita**



## Bikoitz jatetxea

- Eskaintza** **Garibai auzoa 17 / OÑATI**  
943 78 24 83
- Eguneko menua
  - Ogitartekoak
  - Gosariak
  - Plater konbinatuak
  - Razioak
  - Menu bereziak zapatu eguerdian
- Domeketan eta jai egunetan itxita**  
**Zapatuetan:** 11:00-16:00 eta 20:00etatik itxi arte



## Dukiena jatetxea

- Eskaintza** **Azkoaga auzoa / ARAMAIO**  
945 44 50 86
- Menua eta karta
  - Jaunartze eta bataioak
  - Enpresa bazkariak
  - Lagun eta familia arteko ospakizunak
- Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
  - Etxeko postreak
- Astelehenetan itxita**



## Taberna-Berri jatetxea

- Eskaintza** **Durana 24-26 / ARETXABALETA**  
943 79 20 67 / 943 79 49 41  
[tabernaberri@terra.es](mailto:tabernaberri@terra.es)
- Menua
  - Enpresa bazkariak
  - Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
  - Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako
- Berezitasunak**
- Bakailao entsalada epela
  - Oreina Oporto saltsan
  - Arrain parrilada



## Torrekua jatetxea

- Eskaintza** **Ibargarai 37 / BERGARA**  
943 76 50 99
- Eguneroko menua
  - Karta
  - Kintadak
  - Bataio eta jaunartzeak
- Berezitasunak**
- Batik bat arraina
  - Itsaskia
  - Txuletak



## Unzueta jatetxea

- Eskaintza** **Zabola auzoa / ARAMAIO**  
945 44 50 95
- Eguneroko menua
  - Karta
  - Bataio eta jaunartzeak
  - Lagun afariak
- Berezitasunak**
- Parrilla: Okela eta arraina
  - Etxeko postreak
- Egunero zabalik**



## Zotz jatetxea

- Eskaintza** **Zubillaga auzoa 1 / OÑATI**  
943 78 35 45
- Eguneroko menua
  - Ogitartekoak
  - Hamarretakoak
- Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan
- Igandetan itxita**



## Atzeskua

LEIRE KORTABARRIA

# Olatz Lazkano/ Biologoa eta urpekarria

**D**ebagoiena lehorreko ibarra da... Zelan darama debagoiendar batek itsasoarekiko maitasun handi hori?

Bueno, gaur egun itsasoa ordubetera dugu, eta ni Arrasaten bizi naizen arren, joan eta etorri ibiltzen naiz itsasora. Baina egia da nire zaletasuna ezohikoa dela hemen. Txikitatik itsaso aldera, Gironara, joaten ginen oporretan, eta han tutu batekin urpean igeri egiten ikasi nuen. Ordutik datorkit zaletasuna.

**Tutuarekin urpean ibiltzen zinenetik, ordea, gauzak asko aldatu dira: Biologia ikasi eta zure zaletasunean egiten duzu lan gaur egun...**

Biologia ikasketak egin nituen, bai, baina benetako prestakuntza gero etorri zen. Arlo honetan lana aurkitzea ez da erraza. Oraingo, boluntario moduan nabil Ambar elkar-tearekin. Itsas animaliak babestea da gure helburua.

**Horretarako, ur azpian baino gehiago, ur gainean ibiltzen zara, ezta?**

Bai; itsasontzian ibiltzen gara, Bilbotik Portsmouth-era (Ingalaterra) doan ferryan, hain zuzen ere. Ingalaterrako elkar-tearekin lankidetzan dabil Ambar. Hilean behin joaten gara ferryan. Goizetik gaue-ra, han dabiltzan zetazeoak begiratu, kokapena apuntatu eta beste azterketa batzuk egiten ditugu. Horren helburua da zetazeoen zentsua egitea. Baina egia da lan horretarako ez dudala urpean ibili beharrik; izan ere, animaliei ahalik eta traba gutxien egin nahi diegu.

**Zetazeoekin egiten duzu lan, hortaz: izurdeak, baleak... esaten den bezain argiak dira?**

Oso-oso argiak dira, bai. Euren artean komunikatzeko gaitasun handia dute. Distantzia handira komunikatzeko gaitasuna dute.

**Eta oporretan ere, itsasoan ibiliko zara, ezta?**

Bai, horixe! Itsaso Gorrira birritan joan naiz

oporretan. Kuban, Gironan, Kanariar Uharteetan eta Kantauri itsasoan ibili izan naiz urpekaritzan.

**Kanpotik begirata, itsaso guztiak dira desberdinak. Eta ur azpitik begirata?**

Baita ere; oso desberdinak, gainera. Urpekari batendako, Itsaso Gorria da onena; murgildu, eta kolore biziz inguratuta zaude. Zetazeo populazioari dagokionez, ordea, aberatsena Kantauri itsasoa da. Hori bai: itsaso gogorra da.

**Ambar elkar-tearekin boluntario lanaren ostean, beste proiekturik baduzu?**

Oraingo, lan honekin jarraitzea da nire helburua. Honekin asko gozaten dut, eta hori da onena; arazoa, beste hainbat arlotan bezala, dirua eta lan aukera falta da. Horrenbestez, nork bere proiektu propioak sortu eta aurrera eramatea da gertzen zaigun aukera.



**“Urpekariaren ikuspegitik, egon naizen itsaso onena Itsaso Gorria da: murgildu, eta kolorez inguratuta zaude”**

**“Bilbo-Portsmouth ferryan ibiltzen gara hilerro, Kantauriko zetazeoak ikertzeko”**

**“Nire arloan lan aukera gutxi dago, baina nire jardunarekin asko gozaten dut”**

► Arrasate / 26 urte / Kantauriko zetazeoak ikertzen

## PIPERRAUTSA

### Bartolo

**Z**ulo bakarria omen zuen Bartoloren txirulak. Eta nota bera jotzen zuen, behin eta berriz. Apurka hasi zen putzaren indarra eta erritmoa aldatzen, eta halako batean sinetsi zuen Bartolok bere hura musika zela, nota bakarrekoa izan arren.

Espainiako konstituzionalistak ari dira Bartolorena egiten Ibarretxe Planarekin. Arrazoiak dute esaten dutenean planak konstituzioa gainditzen duela, eta hankaz gora jartzen dituela orain 25 urteko adostasunak. Agian ez dute arrazoirik, baina zilegi zaie beldurra eragitea esanaz planak atea irekitzen diola Euskadiren independentziari. Baina hau guztia nahikoa ez nonbait, eta espainolen haserrea piztu nahian hor ateratzen dute Bartoloren txirula zulo bakarrekoa, behin eta berriz jotzeko nota berbera: Ibarretxe Plana baztertzalea da, haien berbetan *excluyente*.

Honetan oker dabilta: planak ez dio inori mugatzen inongo eskubiderik, EAEn gehiengoa duen Eusko Jaurlaritzak aurkeztu du, Eusko Legebiltzarrean eztabaidatuko da sekreturik gabe eta EAeko hiritar guztiek izango dute bozkatzeko aukera erreferendumean. Gainera, hiru lurraldeei aitortzen zaie beto eskubidea, plana ez onartzeko aukera. Baditu itzalak, baina ez hori. Plana ez da baztertzalea, *excluyente*.

Temati nazkante ari dira bartoloak bazterketaren nota jotzen, baina alferrik. Nota bakarrekoina ez da musika, zarata baizik.

MIKEL IRIZAR



**Ormazabal**  
 BARNE ARKITEKTURA  
 Garibai 6C • 20500 Arrasate  
 Tel.: 943 71 19 81  
 Faxa: 943 71 19 82  
 GIPUZKOA